



BORROKA BERAK BATUTA

Martxoaren 8ko greba feministarako prest dira. Herriko lau emakume feminista elkartu ditu Uztarriak, solaserako 20



ZURE SEME-ALABEN
IRRIBARREA ZAINTZEN
DUGU. IRRIBARRE EGITEA
EZ DA EZER KOSTATZEN.

► PADI 2019 programazaren barne gaude.
Jose Artetxe kalea, 5 (Gabalaserra ondoan) 20750 Azpeitia



INNOVA

BORTZ KLINIKA

📞 943 025 955

PET eta FCE egin duten gure gazteei

EMAITZA BIRIL-BIRIBILAK!

%100ek gairiditu dute

CENTER**POINT**

ENGLISH ACADEMY

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.eus

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 214.a (2019ko martxoa)

Urtea. XX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685780412 /

uztarria@uztarria.eus

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Maialen Etxaniz

Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak



DOMUSA
TEKNIK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen
aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

2019KO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Neguan zer
kirol praktikatzen
duzu? **13**

mamia

Elkarrizketa. Yurre
Peñagarikano Urkome
elkarteko gerentearea-
rekin solasean **04**
Klik! Urola ibaiko
fauna, irudietan **16**
Munduan zehar,
arrantzan. Jose
Manuel Asiainek
munduko hainbat
txoko ezagutu du,
arrantza tarteko **24**


jakiteko

Bestaldetik. Xabier
Lasa atletak, lasterka
egiteaz gain, badu
afiziorik **34**

Ba a l dakizu euskaldun batek idatzitako
Lehen inkunabla Lea Martin zurbano
azpeitiarrarena dela? Uztarrria


Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia**
txikiak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.



1.060 bazkide
gara Uztarrria Komunikazio
Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro
dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

YURRE PEÑAGARIKANO

Urkomeren gerentea

“Lurrak eskuratzeko egundoko arazoa dago”

Baserriko belaunaldi arteko etenak kezka eragiten dio, eta Azpeitiko Azoka Plazaren antzeko proiektuak sustatzeak duen garrantziaz hitz egin du. 📝📍 M. Oiarzabal

Otsailean bete ditu 11 urte Yurre Peñagarikanok gerente lanean Urkomen, Urola Kostako landa garapenerako elkartean; eskualdeko 11 udalek eta 23 nekazaritza elkartek osatzen dute Urkome. Urte horietan ikusi duen bilakaeraz eta esku artean dituzten proiektuez eta erronkez hitz egiteko hartu du Peñagarikanok Uztarría Sindikatu Zaharrean, Urkomeren lantaldearen egoitzan.

Zer eginkizun ditu Urkomeren gerenteak?

Urkomek baserritarrek in egiten duen lana da, behar bada, gehien ezagutzen dena, baina lau arlotan egiten dugu lan. Lehenengoa eta inportanteena da nekazaritzaren eta nekazaritza osatzen duten

azpi-sektore guztien garapena. Bestetik, landa eremuko garapen ekonomikoa bultzatzea ere bada-gokigu; landa eremuan egon daitekeen edozein aktibitate ekonomiko bultzatzeaz ari gara, nekazaritzaz haratago. Landa eremuan bizi den jendearen bizi kalitatea bermatzea da gure hirugarren lan ildo. Azkena, baina nire ustez gero eta garrantzia handiagoa duena, da lehen sektoreak gizar-tean duen pisua eta balioa erre-konozitzearen aldeko lana egitea, sentsibilizatzea, balio hori gizar-teratzea.

Asko aldatu al dira kontuak zu Urkomen hasi zinenetik, landa eremuaren errealitateari eta zuen lanari dago-kionez?

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1973ko apirilaren 4an.

|||**Herria.** Tolosa. |||**Bizitokia.** Tolosa. |||**Lanbidea.** Urkomeren gerentea.

Aldatu dira, bai. Lan ildoek berdin jarraitzen dute, baina duela 11 urte egiten genuen lana eta gaur egun egiten duguna erabat desberdinak direla esango nuke. Ni sartu nintzenean, alde batetik, Foru Aldundiak banaka egiten zituen hitzarmenak landa garapen elkarte bakoitzarekin, eta diru horien kudeaketarako proposamena eskualde mailan egiten zen. Garai hartan, Urkomeren lana gehiago bideratzen zen azpiegitura kontuetara: baserri bideak, ur hornidurak... Azken lau urteotan eman da aldaketa nabarmena, batez ere. Aldundiak bere

gain hartu du baserri bideen kudeaketa, eta ur hornidura eta saneamendua ere gero eta gehiago bideratzen ditugu Ur Kontsortziotik. Gipuzkoa osoa kontuan hartzen duen ikuspegi batekin ari gara orain lanean, eta Gipuzkoako landa eremuaren garapenerako sei elkarteen artean erabaki behar ditugu lehen eskualde mailan erabakitzen ziren gauzak. Alde batetik onerako izan da, irizpide bateratuak finkatu ditugulako. Bestetik, gero eta proiektu gehiago daude Gipuzkoa mailakoak, eta askoz lan karga handiagoa ekarri du ikuspegi bateratuarrekin lan egiteak. Izugarri aldatu den beste arlo bat da komunikazioa. Agian ez gara gogoratzen, baina orain dela 11 urte Wha-

tsappa ez zen existitzen, adibidez. Harremanak, komunikazioaren maiztasuna, sare sozialak... aldaketa ikaragarria izan da. Azkenik, bertako produktuari ematen zaion garrantzia ere asko aldatu da, onerako, erakundeetan zein gizartean.

Urola Kostako 11 udalerritan egiten du lan Urkomek. Bateko eta besteko landa eremuek behar berdina al dituzte? Nola egiten duzue orekak mantentzeko?

Badakigu Zarautzen edo Beizaman, esaterako, beharrak oso diferenteak direla. Udalerritu guztientzat gaude, baina egia da herri txikiei zerbitzu gehiago eskaintzen dizkiegula, behar gehiago eta azpiegitura gutxiago daukatelako. Herri txikiak dinamiketan presenteago gaude, oro har; aholkulari lana ere egiten dugu kasu horietan. Administrazio ezberdinekin hartu-eman daukagunez, eta landa garapenerako elkarteok sarean ere lan egiten dugunez, askotan partekatzen ditugu herri ezberdinetan sortu daitezkeen antzeko arazoei aurre egiteko irtenbideak. Baina beharrak oso diferenteak dira, bai landa eremuan batetik bestera, bai sektorean. Gainera, eskumenei dagokienez, oso banatuta daude lehen sektorearen barruan. Orduan, askotan jendea galduta ibiltzen da, laguntzak edota baimenak non eta nola eskatu ez dakielako. Guk batzuekin eta besteekin harremana dugunez, bitartekari lana egiten dugu sarritan.

Leihatila bateratuaren funtzioa ere betetzen duzue, hortaz?

Lehen sektorea indartzea eta landa eremuan proiektu berriak egotea nahi badugu, jendeari erraztasunak eman behar dizkiogu. Eta ezin dugu ahaztu inportanteena dela dagoen gutxi hori, behintzat, mantentzea. Kontuan hartu behar dugu biztanleen %80a lurraren %20an bizi dela dugunean; eta %20a bizi den tokiak



Yurre Peñagarikano, Azoka Plazaren atarian.

lurren %80a hartzen du. Lur horiek eta gure paisaia eder hau mantentzea horiei dagokie. Horregatik da garrantzitsua erraztasunak ematea.

Urola Kostan, oro har, zer osasun du gaur egun landa eremuak?

Datu estatistikoei erreparatuta, Gipuzkoan lehen sektoreak ekonomian indar handiena duen eskualdea da Urola Kosta; kontuan hartu behar da, noski, zer zenbaitzen duten lehen sektorearen barruan, produktuen eraldaketa eta hor sartzen dituztelako. Hala ere, ikusten joan naizen eboluzioari begiratuta, egia da, agian, ez dagoela lehen adina profesional, baina daudenak profesionalagoak dira; lur sail handiagoak behar dituzte eta gehiago ekoizten dute. Ekoizle berriak ere ikusi ditut sartzen, eta oso ondo ari dira lanean. Gero, iruditzen zait traktore lana egingo duten proiektuak ere behar direla eskualdeetan. Adibidez, Azpeitian

hor daukagu Azoka Plaza berrieta eta Elikagunea; urtebete eskas da ireki zirela eta oraindik garaiz da emaitzak baloratzeko, baina uste dut traktore lan ikaragarria egin dezaketeela.

Elikagunea zer izango zen azaltzea erraza izan al zen?

Urte eta erdi bada prozesuarekin hasi ginela. Hasieran, Azoka Plaza berritzeko beharra zegoen.

Berritzearekin batera, aukerak ikusten hasi ziren, eta Udalak erronka hartu zuen, arriskatzea erabaki zuen. Uste dut oso ausarta izan zela, horrelako eredurik ez baitzegoen inon. Oso erraza da nonbaiten ondo funtzionatzen ari den eredu bat kopiatzea edo moldatzea; baina kasu honetan, ez zegoen eredurik. Gu ere apustu horren aldekoak ginen, bultzatzai-



leetakoak ere bai, eta prozesu osoan egon gara. Nerbio eta kezka puntu bat bageneukan. "Eta hori egin behar duzue? Eta nola egingo duzue?", galdetzen ziguten, baterako edo besterako laguntza eske joaten ginenean; animoak ematen zizkiguten, baina eszeptizismo nabarmenarekin, gehienetan. Gauza guzti horiek ahaztu egiten dira gerora, irekitzeko unea iristen denean. Gainera, egia da zorte handia izan dugula pertsonekin. Proiektu horretan parte hartu duten pertsonak, eta Elikagunea ireki duten pertsonak, gakoa izan dira proiektua aurrera eramateko eta eramanean den moduan eramateko. Hasieratik ulertu zuten oso ondo proiektua. Baserritarrekin mahai bat eratuta daukagu, eta transmisioa eta komunikazioa erabatekoak izan dira. Baserritarrek hasieratik sentitu dira proiektuaren partaide. Beste eskualde batzuetako jendeak esaten zidan Elikagunea konpetentzia izan zitekeela azoketako jendearentzat; nik esaten nien oker zeudela iruditzen zitzaidala, eta hala zeudela erakustea espero nuela.

Lehen urtebetea igarota, zer balorazio eta iritzi jaso dituzue baserritarrengandik?

Proiektua hasieratik ulertu bazuten ere, egia da denek zutela eszeptizismo puntu bat, Elikagunearen martxa ikusi arte. Aurreikus-

pena zen aprobetxatuko zirela sinergiak, bai baserritarrentzat, bai Elikagunearentzat, eta egia bihurtu da. Lortu da bertako produktuen kontzeptua ondo ulertzea, eta baserritarrek oso garbi dute harreman hori, beraiena ere hor sartzen delako; badakite beraiek plazan ez dauden orduetan ere han saltzen dutela beren produktua. Azokako baserritar asko bazkide egin dira Elikagunean, eta han egiten dituzte erosketak. Azkenean, elkar laguntzea da. Gainera, baserritarrek ikusi dute gehiago saltzen dutela, eta azoka indartu egin dela.

Herriarrek ere ulertu al dute kontzeptua? Egin al dute proiektu berriaren aldeko apustua?

Bai. Ekoizleek esaten dute gehiago ari direla saltzen; eta hori errekonozitzeko... Bestetik, iritsi gara azoketatik pixka bat urruntzen ari

“baserritarrek hasieratik sentitu dira proiektuaren partaide”

“aitortza merezi dute Landa eremua mantentzen ari direnek”

zen jende batengana, beste belaunaldi bateko jendearengana, eta hori ere bazen Elikagunearen asmoa. Baina azoketan ere antzematen da hori. Azkenean, traktore lana egin du Elikaguneak. Herriaren erdigunetik urruntzen ari zen pixkanaka aktibitate ekonomikoa eta Alde Zaharra gainbehera zetorren, beste herri batzuetan ere gertatu izan den bezala. Uste dut, alde horretatik, Azoka Plaza ari dela bere funtzioa betetzen. Urtebete besterik ez da pasatu, hori ere ez da ahaztu behar, eta iruditzen zait asko egin daitezkeela oraindik.

Landa eremuak husten joan dira, baserri asko hutsik geratu dira, edo baserri jarduerarik gabe. Joera horiei aurre egiteko egitasmorik ba al duzue esku artean? Zein litzateke lehentasuna?

Baserria dedikazio eskusiboa izan gabe baserrietan bizitzen jarraitzen dutenak daude, alde batetik. Asko dira zerbait mixtoa mantentzen dutenak, kanpoan lan egin arren, baserriko gauzak ere mantentzen dituztenak; ez dira baserritik bizi, hori ez da beren diru sarrera nagusia, baina mantentzen dute zerbait. Horiek gero eta gehiago ari dira beharrezkoa den lan bat egiten, landa eremua mantentzen ari dira; aitortza bat merezi dute, horiek zaintzea eta gustura egotea ere

garrantzitsua da. Bestetik, hutsik gelditzen ari diren baserriak daude. Arazoa da, askotan, baserriak eta lurrak batera saldu behar direla, eta urrea balio dute. Lurрак urrea balio du, eta zerotik hasten den nor sar daiteke horrelako inbertsio batean? Hori da benetako arazoa.

Bizi osoan “baserriak ez du ematen” entzun izan duten gazteak nola animatu behar dira baserrira, belaunaldien arteko etena saihesteko? Eta lurрак urrea balio duenean...

Aurrena, baserritarrek beraiek hasi behar dute esaten seme-alabei hortik bizi daitezkeela, eta jarraitzeko. Lehengo eta oraingo baserriak desberdinak ere badi-ra. Egia da asko transmititu izan dela kaleko lantokietan lan egitearen onura, baserriko lanarekin alderaketa eginez. Baina kaleko lantokietan lan egiten zuten horietako askok mantendu dute baserria ere. Baserri hutsetara itzuliz, berriz, bat baino gehiago etorri zaizkit baserri bat erosi nahi dutela esanez, beren bizimodua hortik ateratzen saiatu nahi dutenak, baina ez dago aukera handirik. Egundoko arazoa dago lurрак eskuratzeko, baita alokairuan ere. Europako legeek ere ez dute asko laguntzen, lurрак izateagatik kobratzen dutenek ez baitute nahi diru hori kobratzeari uztea. Arazoa handia da.*

BIYONA
BERRIKUNTZAK-REFORMAS
www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Abendako poligonoa, 2
Tel. 943 135 016
Zarauz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumala

San Juan, 16 edif. AGR
Tel. 943 802 110
Azkoitia

Gesalaga Kalea, 18
Tel. 943 148 241
Zestoa

Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Asuna edo menda-belarra

Gure afizioetarako denbora gehiago behar genuke; gure lana behar bezala egiteko, abiadura jaitsi; hausnartzeko, isiltasuna baliatu; aberasteko, bidaiatu; irakurri; solasaldi luzeak izan; batekin eta bestearekin tearen edo kafearen inguruan komentarioak tartekatu... Edo, beharbada, ez da denbora falta zaigun bakarra, ezta? Ze besteen bizitza Instagramean kuxkuxeatzeko astia hartu, hartzen dugu. Bidaiatu ere, batzuek gehiago beste batzuek baino, baina egiten dugu. Eta irakurri, gutxi gorabehera, ere bai.

Nik uste solasaldiena dela gutxien mantendu dugun joera. Eguzkiaren argia aldatzerainoko *sobremesa* haiek, bazkariak ia konturatu gabe afari bilakatzen ziren uneak, eta eskasten ari direnak. Eta paseatzea! Bidezidorrean konfiantza jarrita, eramaten uzten ginen uneez ari naiz; edo zakurrak bidea aukeratu eta hari jarraitzen genionekoez; edo lore batek edo paisaiak berak geldiarazten gintuzten momentu haiez.

Zergatik izan behar dute momentu horiek oporren bueltakoak? Ez ote dugu, bada, talenturik izango egunerokoan tartetxo horiei lekua egiteko? Nik ariketa fisikoari tartetxo bat egiteko erabaki irmoa hartua dut –urtea hasi deneetik, dena esan behar bada–, baina momentuz, aitzakiak ari dira irabazten. Eskutitzak idazten masterra daukadan arren, urteak daramatzat urrutiko lagunei idatzi gabe. Hori ere, momentuz, ez dut bete. Baina ekinaren ekinez lortzea espero dut, asebetetze horrek benetan merezi duelako. Ez dira gauza bera e-posta bat edo eskutitz bat bidaltzea; edo mezu elektroniko bat jasotzea edo eskutitz bat jasotzea!

Norbere buruari opa

Urrutira joan gabe, Uztarriak emandako aukera honek, eskuz idazten ez dudan arren, hausnarketarako parada eman ohi dit hilero, bat-bateko hausnarketak idazteko aukera. Edo ZuriHartz sormen gunean Gorka Larrañagaren eskutik *collage* ikastaro trinko bat egiten




|||||||olatz aguado||||

|||Egunerokotasunak ez gaitzala erre, eta barrenak baretzeko astia har dezagun, berandu baino lehen!

hasi naizenetik, aparkatuta nuen eta ikaragarri betetzen nuen teknika berreskuratzeko aukera eman diot neure buruari. Edo tarteka marraztuz, edo etxekoekin eskulanak eginez... Uste dut norbere buruari opa behar dizkiogula horrelako momentuak eta tartetxoak, oporrak iritsi zain gelditu gabe. Orainak asebetetzen gaitu; besteek, kontaktuek, isiluneek, kafe batek, pazientziak egindako gauzek, su epelean goxatutakoek. Finean, gauza xume bezain sinpleek.

Bizitzaren zelaian asunak bakarrik ikusi nahi dituen ere egingo da, seguru! Ez ahaztu asunaren ondoan beti menda-belarra dagoela, eta bataren errea baretzeko gaitasuna duela besteak. Beraz, egunerokotasunak ez gaitzala erre, eta gure barrenak baretzeko astia har dezagun berandu baino lehen!

Ez nuke amaitu nahi edonork geure baitan ditugun korapiloak aipatu gabe. Horiei ere beren momentua eman behar zaiela uste dut. Bakoitzak ikusiko du eta bilatu beharko du korapiloa aurre egiteko modua, eta erabaki beharko du nola eta noiz hasi hari muturrari tiraka. Baina aurreko aholkuak menda-belarren momentuko baretze efektuan geldi ez daitezten, lehenago edo geroago horiei aurre egiteko eta barrenak askatzeko, barkatzeko, onartzeko, konturatzeko aukera bilatu behar genuke, modu horretan norbera eta maite gaituztenak askatuko baigenituzke!*



Plazan jarraituko dugu

Memoria laburra dugu. Ahaztu egiten zaigu nondik gatozen; eta horrela, jakina, zaila da nora joan jakitea. Martxoaren 8aren atarian, kezka sortzen didate hainbat diskurtsok. Horregatik diot nondik gatozen jakitea ezinbestekoa dela. Beharrezkoa da atzera begiratzea, eta ikustea gure aurrekoek zenbat lan egin duten gu hemen eta honela bizi gaitezen. Gogora dezagun ez direla urte asko igaro emakumeak lehen aldiz botoa eman zuenetik. Hego Euskal Herrian, 1933an izan zuten emakumeek aukera hori; eta Iparralde Euskal Herrian, 1945ean. Gure aiton-amonon garaiko kontuak dira, bi egun historia-ren joanean. Eta horrekin batera, hezkuntza jasotzeko eskubidea, jabetzak izatekoa, gizon batekin ezkondu gabe norbait izateko eskubidea. Horiek guztiak gaur egun geure egiten ditugun eskubideak dira. Baina geure egite horretan, ahaztu egiten zaigu ez direla zerutik eroritakoak, ez direla betidanik izan ditugunak; eta, aldi berean, ez direla betirako izango, ez baditugu defenditzen behintzat.

Berdintasunari begira, urrats asko ditugu emateko. Nazio Batuen Erakundearen arabera, herrialde guztien batez bestekoa eginda, lanordu berak egiteagatik emakumeen soldata gizonena baino %23 baxuagoa da. Lan merkatuan, umetoki bat bezala ikusten da emakumea, eta zaintza lanak berezkoak dituela saldu nahi digute. Publikoki aurpegia eman behar duten emakumeek beti jasan beharko dute besteen begirada: itxura fisikoa komentatuko dute, janzteko modua, eta gizonez baino hamar bider gehiago hitz egingo dute beraiez. Ez du bukaerarik: indarkeria matxista, behartutako ezkontzak, mutilazioa... Beraz, gure eskubideen alde borrokan jarraitzea eta plaza hartzea dagokigu, aurrera egin dezagun, eta ez atzera.

Gauza bera gertatzen zaigu euskararekin. Azpeitian euskaraz bizi gaitezke, lasai eta gehiengoaren babesarekin. Baina hori ere aurretik lan handia egin dutelako da. Uztartaria bera, normalizat hartzen dugu. Munduko gau-



eneritz albizu

III Nondik natorren ahaztu gabe eta nora noan erabakitzeke ahaleginean, zuei “hurrengo bat arte” esatea tokatzen zait orain

zarik normalena iruditzen zaigu egunero herriko albisteak euskaraz irakurtzea eta eskuarte- an duzun aldizkari hau jasotzea. Baina ez zen erraza izan haren hastapena, eta hainbat herri- tarrek eginiko ahaleginagatik dugu pribilegio hau. 1999ko azaroan argitaratu zen Uztartaria- ren lehen aldizkaria. Hogei urteren buruan, hemen gaude, Uztartaria betidanik izan dugun zerbait balitz bezala.

Hurrengo bat arte

Niri ere, nondik natorren ahaztu gabe eta nora noan erabakitzeke ahalegin honetan, zuei “hurrengo bat arte” esatea tokatzen zait orain. Genero berdintasunaz eta euskararen normalizazioaz jardun dut gaurkoan; bizitza honetan zerbait banaiz, emakumea eta euskalduna naitela sentitzen dudalako, eta borroka horiek nire egiteak indar eta ilusio handia sortzen ditalako.

Hemendik aurrera, beste herritar batek hartuko du orrialde honen erreleboa. Plazera izan da zuen aurrean biluztea, pentsatzen eta sentitzen dudana konpartitzea. Hegan pasatu zaizkit lau urte hauek. Eskerrik asko, irakurri nauzueno! eta kritikak egin dizkidazueno!. Askok ikasi dut, eta horretan jarraitzeko asmoa dut. Emakume eta euskaldun bezala, plazan jarraituko dut. Plazan jarraituko dugu.✱





Leku berria, arima bera

Koh Tao berria zabaldu dut duela gutxi. Foru ibilbidean hamabost urte pasatu ondoren, aldaketa bat egiteko garaia zela sentitu nuen, eta orain, Jose Artetxe kalean nago. Hori bai, lehengo filosofia bera mantentzen dut: estetika asiarra, egurrezko altzari orientalak, budaren irudiak, intsentsu usaina, musika goxoa...

Lekuz aldatzearekin batera, beste berrikuntza bat egitera ere animatu naiz: azken boladan piercing munduan hainbat kurtso eta formakuntza egiten aritu naiz, eta orain, osagarriak eskaintzeaz gain, piercing estudioa ere zabaldu dut dendan.

Urtero bezala, Thailandiara bidaiatzen jarraitzen dut, jendeari produktu originalak eta bereziak eskaintzeko. Hala, hemen ekoiztiko produktuez gain, Asiako hainbat gauza berezi ere badut dendan. Ikaragarri gustatzen zait gauza ezberdinak bilatzea eta horiek jendeari eskaintzea.

Oso pozik nago proiektu berriarekin eta jendearen erantzunarekin. Eskerrik asko.



||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||



GORA. Agurra, euskara hutsean.

Uztailarekin itxi zituen ateak saltoki honek, eta herritarrei eskerrak emateko kartela euskara hutsean jarri zuten erakusleihoan. Bejondeizuela! 📌 **Uztarria**



BEHERA. Salgai dago, bai.

Lokal ugari dago salgai Alde Zaharrean, eta Erdikaleko lokal honen jabeak salgai dagoela iragartzeko kartel galanta jarri du. Euskaratzen badu, agian...  **Uztarrria**✱



Lolo Encinas.

|||ESANA DAGO|||

III “Nahiago nuke
Urrezko LEB
ligarako plaza bat
lortuko bagenu, eta
gero Xubik-eta egin
dezatela borroka
erakundeekin”

III “Taldearen egoerarekin oso pozik nago. Maitatua sentitzen naiz hemen”

LOLO ENCINAS
Juaristi ISB taldeko en-
trenatzailea

III “Oposizioetara
oraintxe lizentziatu
den jendea aurkez
daiteke, eta guk ez
daukagu
horretarako
aukerarik”

JULEN SANTESTEBAN
irakasle teknikoa

URBISTONDO
MARGOAK

 **Aiertza Autoak**
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Adarrak

Bai, arrazoi duzu. Bezeroak beti arrazoi badu, zuk, irakurle zintzo eta jator horrek, zuk ere arrazoi duzu. Aspaldian ezkor, negatibo, ilun, triste, petral eta erretxinduta nabil. Litekeena da – litekeena ez, hala da –, egoera horretan egoteko nahikoa arrazoi ematen didatela munduak eta mundutarrek. Beno, arrazoi ala aitzakia? Esango nuke nire bizitza erosoago egiteko aitzakiak direla. Erosoago, eta aldi berean, pobreago. Kexa, tristura, pena, negarra, aitzakia erraz eta merkeak dira. Oso erosoak. Ez dute ezer eskatzen, baina eman ere, ez dute ezer ematen.

IKUSTEKOAK

Mundutar alu, triste, zeken eta bihotz ga-beek eraiki nahi diguten mundu gris honi aurre egin behar zaio. Ezin dugu amore eman, ezin dugu etsi. Hori da bide bakarra. Ilunari argia, tristurari alaitasuna, ezetzari baietza, petralkeari... Petralkeriari, zer? Ba petralkeriarentzat antidotorik edo sendabiderik eraginkorrena, inoiz hutsik egiten ez duena, adarra da; adarjotzea da gizakiak inoiz asmatu duen ibuprofeno, aspirina edo antibiotikorik onena. Norabide bikoitzeko adarjotzea. Bota eta entzun. Norabide bakarrekoa homeopatikoa da, bai baina ez; joan-

etorrikoak inoiz ez dizu hutsik egingo. Adarjotzearena arte bat da. Minik ez egin, eta zu zeu ez mintzeko, ez izan oso azal finekoa. Atxuiako jakintsu filosofo eta filosofo jakintsuak aspaldi esan zuen bezala, "adarra jotzen dakien herria ez da inoiz hilko". Hori bai, ondo irakurri, *adarra jo* dio Landetatik aurrerako horrek. Aditza aldatu eta *jo*-ren ordez hitza pluralera pasatu, aditza aldatu eta *jarri* ipintzen badugu, ekuazioa erabat aldatzen da. *Jo* beti *jarri* baino hobea da, nahiz eta posible den jotze hutsarekin jarri ere egitea. Horretaz hurrengo enziklikaren batean arituko gara.*



txetxu urbieta



ESKULTURAK ZURITZEN ZIRENIK ERE...

2005eko otsailaren hasieran jarri zuten Auazaraza auzoan Sebas Larrañaga azkoitiarrak egindako Amatasunaren irudia. Urteak pasatu dira eskultura zelai horretan jarri zutenetik, eta orain aste batzuk hura txukuntzen aritu ziren. Lixatu eta zuritu egin dute urteekin kolorea galdua zegoen irudia. Eskulturak zuritzen zirenik ere! 🗑️ **Uztarria***

|| OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... ||



Zer gertatzen da zuhaitz hauekin?

GIZARTEA. Aurrez diot, ezjakintasunetik idazten dudala. Urteko ikusten ditut zuhaitz landaketa gisako egitasmoak, eta, noski, ekimen onak iruditzen zaizkit. Uztarriaren webgunean irakurri nuen, azken hiruzpalau urtetan 350 zuhaitzetik gora landatu dituela udalak. Baina beti galdera bera datorkit burura: zer gertatzen da zuhaitz horiekin? Nork zaintzen ditu? Beren kasa hazten al dira?



|| alaitz aguado ||



Joango nintzatekeen...

KULTURA. Berri Txarrak kontzertura joatekoa nintzela eta, lagun batentzat sarrera erostea pentsatu nuen (sarrera bat, Uztarriari esker Kultur Bonoa dudalako), baina ilara sortu eta berehala agortu ziren; aukerarik ez. Ni ez naiz taldearen jarraitzailea, baina kontzertua herrian zela, izendun taldea zela, giro ona egongo zela... ostegun baterako plan polita iruditu zitzaidan. Dena den, denentzat sarrerarik ez zegoenez, nik baino gehiago estimatuko zuen lagun bati utzi nion Kultur Bonoa, hark goza zezan.



Loiola, 1935

HERRIA. Irudi zaharra dirudi. Esan digutenez, 85 urte inguru ditu. Ez nago ziur nondik aterata dagoen (laguntzerik?), baina hain desberdina al dago Loiola? Herria bai, desberdin dago. Garai hartako herriaren erdiguneko edo beste auzoren bateko argazkirik eskuratuko bagenu, al-

daketak benetan agerikoak izango liratekeela esango nuke, hirigintza aldetik batik bat. Baina Loiola? Eta argazki hau, zehazki? Langilearen estilismoa eta haren lanabesak alde batera utzita, ez al dago ingurunea antzera?*

INKESTA

nequan zer kirol praktikatzen duzu?

I. Elustondo/A. Olaizola

IONE DE LA CRUZ

25 urte



"Ez dut kirol asko praktikatzen, baina areto dantzetako

saiotetara joaten naiz astean behin. Oso gustura aritzen naiz dantzan, izan uda ala negu".

MANUEL ODRIOZOLA

56 urte



"Neguan lan asko izaten dut, eta nahi baino denbora gutxiago

kirola egiteko. Dena den, batzuetan joaten naiz mendira lasterka egitera. Lehen kirol gehiago egiten nuen: palan, bizikletan... ibiltzen nintzen".

ENAITZ SAGARNA

17 urte



"Aurten hasi naiz kirola egiten. Jumping saiotetara joaten naiz,

koltxoneta gainean egiten ditugu ariketak. Korrika egitera ere joaten naiz tarteka; izan ere, eguraldi txarrak ez dit oztopatzen lasterka egitea".

DIANA SILVA

16 urte



"Iraurgi saskibaloi taldean jokatzeko dut, eta beraz, saskibaloian

aritzen naiz urte osoan zehar. Askok gustatzen zait kirol hori. Saskibaloiaz aparte, ez dut beste kirolik praktikatzen, normalean".*

Konplexua

Mota askotariko konplexuak ditugu, hizkuntzari lotutakoak tartean. Ni Tokion bizi naiz, eta japoniera batuan hitz egiten dut han, baina iparraldeko nekazarien munduan dagoen gure herrira joaten naizenean, beti bertako hizkeran aritzen naiz.

Azken hogeit bat urte hauetan, ordea, gure herriko gazteek ez dutela bertako hizkeran hitz egiten konturatu naiz; lagunaren artean, behintzat. Gu gazte ginean, aldiz, edonorekin eta edonon, herriko hizkeran mintzo ginen. Garbi dago jendea herriko hizkerarekin lotsatu egiten dela eta horregatik jotzen duela japoniera batura. Lotsa hori guk ere bageneukan gure gazte denboran. Baina lotsa zergatik? Erantzuna garbi dago: barre egiten zigitelako (edo digutelako) hizkeraren kontura. Zergatik, ordea? Beraien burua hiritar modernotzat zutenek laborantza giroko jendea behe mailakoa bailitzan hartzen zutelako, eta gure hizkerak baldarrak bailiran, burla egiten zigitelako.

Horren bueltan historia luzea dago, eta hedabide-



hiromi yoshida

ek egin izan duten zerbait ere bai. Horrela sortu zigten gure hizkerarekiko konplexua. Baina gure herrian batuan hitz egitea ez zitzaigun inoiz burutik pasatu gaztetan. Dena den, egungo gazteek lehengo gazteok baino informazio askoz ere gehiago daukatelako edo, bertako hizkera uzteraino iritsi dira. Ama gazteek beren umeak japoniera batuarekin hazten dituzte, "guay" ez den herriko hizkera albo batera baztertuta.

Zerbait euskal hiztunek ere konplexua daukala dirudi, eta euskararen kasua askoz ere konplikatuagoa iruditzen zait: batetik, euskarak gaztelaniak baino balio gutxiago duelako uste ustela hor izan da; eta bestetik, beste euskalkiekiko konparazioek ere eragin dituzte konplexuak. Hangoa politagoa dela, horkoa zatarragoa, han gaizki hitz egiten dutela eta abar. Baina hizkuntzalari begiekin ikusita, ez dago ez hizkera zatarrak, ez politik. Hizkuntzak (dialektuak) hor daude eta kito. Eta dauden bezala errespetatu nahi ditugu, gizakien altxorak dira eta.*

galdetzen hasita, noiz izango da herritarrentzat erabilgarri sorea sorko sormen gunea? Uztarria

Horma zaharrak

Soroak aspaldi bilakatu ziren zelai; basoak ere galdu ditugu. Azken hamarkadetan asko aldatu da gure herriko paisaia, hala nola hor ditugu leiho-zulok egurrez estalita dituzten baserriak. Zer esango lukete gure attitiek eta amamek beren etxeko sarre-harri tapatuta ikustean?

Euskaldunon nortasunaren adierazle dira baserriak. Nondik sortu ziren herri kirolak? Non dute oinarria euskal dantzek? Nondik dator jaki osasuntsua? Egun, ordea, baserria gainbeheran doan heinean, galduz doaz bai herri kirolen eta dantzaren ezagutza, bai elikagaien kalitatea. Eta zer esan gure hizkuntzaz? Baserria itzaltzen joan ahala hamaika hitz ere ilunpean geratu dira. Bihitegia, pendarra, gorba, opatxurra, armailua, zizailua, garaia, galbahea, eta abar. Aitortzen dut luzea dela sekula ahoskatu ez dudana baserri giroko hitzen zerrenda.

Aurtengo santa eskean zortea izan dut 25 urtez kantuan irten den lagunartean oles eginaz gozatze-



irati aranguren


ko, 25 years challenge egiteko tartea esku-eskura. Mende laurdenean, baserri erdiak hustu diren arren, itxaropentsu kolpatu genituen gainerako baserri etxeetako lurrak, antzutatutako baratzei uza emankorra eskatzeko. –Noizbait norbaitek baratzea berpiztuko duen esperantzaz, inozoak gu!–.

Kaletartutako gizarte hau baserri bizitzaren hasia ezinezkoa bada ere, baserriak etxe bilakatuta, oraindik garaiz gaude herriaren ondare preziatuak babesteko. Orendaingo herriaren kasuan, Udalak baserri hutsak dituzten jabe pribatuei laguntzak eskaintzen dizkie horiek biziberritzeko. Besteak beste, baserrietan hiruzpalau etxebizitza egiteko aukera ikusten badute, lehenik erosleak aurkitzen dituzte, eta ondoren ekiten diote obrari, horrela baserriaren bizirautea bermatuz.

Eta zuk zer egingo zenuke gure herriko horma zaharrak kondaira urratu baten ezaugarri bezala, soilki, bakardadean ez gelditzeke?*

HAU HOLAXEENK

OSO ERRAZA DA.
MOZTU, TOLESTU,
ITSATSI, JAURTI
ETA KONPROBATU
DADO #! HONEK
ZUK BAINO GEHIAGO
BIRZIKLATZEN DUELA.



#Arteakireki

Zarata handirik gabe iritsi da lege berria, soinurik ozenena atera dezakeen kolektiboa zapuztera dator, gainera. Jendaurreko ikuskitzen eta jolas jardueren Euskadiko lehenengo erregelamendua onartu berri du Eusko Jaurlaritzak. Besteak beste, kultur jarduerak murriztuko dituen 82 orriko testua onetsi dute. Bizikidetzaren erregulatzeko asmoz osatu omen dute, baina legeetan ohikoa den moduan, erabaki murriztailez bete dituzte artikulua gure hobe beharrez. Arteak Ireki plataforma sortu dute lege horren aurka, batez ere, areto txiki-tako eta tabernetako kultur ekitaldiak mugatu-

ko dituen legearen alde hori salatzeko. Izan ere, horiek ezingo dituzte urtean hamabi ekitaldi baino gehiago antolatu, ezta hilabeteen bi baino gehiago eskaini ere.

Duela urte batzuk Extremadurako lagun bat gonbidatu nuen kultur asteburu bat igarotzera. Laguna ausarta da, eta ausardiaz jokatu nuen nik ere. Asteburu berean bertso saio bat, abesbatza baten emanaldia eta Mursegoren kontzertua bizi izan genituen (bai, Mursegoren kontzertu bat), guztiak gaztetxeetan zein tabernetan. Harrituta geratu zen inguruko kultur adierazpenen aniztasunarekin eta horiek au-

rrera emateko azpiegiturekin eta borondatearekin. Elkarrengana aipatu zidan. "Kultur jarduna dago, eta hori aurrera ateratzeko lekuak daude. Lekuak daukazue, kultur jarduna daukazue", adierazi zidan. Jardun horren gora-beherez hitz egin nion, prekaritateaz eta boluntarioen prestutasunaz. Agertokian dagoe-naren nahiz antolatzailaren atzeko lanez aritu nintzaion. Nola batakoa ala besteak ekonomikoki duten laguntza eskasaz bete zitzaidan ahoa. Alegia, negar pixka bat egin nion.

Badirudi, etortzen den hurrengo aldirian, tris-turarako aitzakiarik ere ez dugula izango.✱



felipe murillo

Erotikan Plax!

Maria Zunzunegi psikologo-ari egokitu zaio hil honetako gal-derei erantzutea.

Sexualitatea ardatz duten zer egoerarekin egin duzu topo?

Absentziarekin, bai sexu praktike-tan, bai harremanen osasunean.

Hainbat sexu jokabide gaixotasuntzat hartu izan da. Nola ikusten dira horiek jendarte-an?

Askatasunak beldurra ematen digu. Norberak bere kaiola eraikitzen du, eta hori gizartearen kaio-lan sartzen da. Muga askorekin segitzen dugu.

Sexualitatean, zer izan daiteke terapeutikoa?

Sexualitatea errespetuz eta modu askean bizitzeko laguntza dizun pertsona aurkitzea.

Ligatzerakoan, nola konekta daiteke norbere indargunee-kin?

Autoestimarekin konektatuta.

Seduzitzeko zailtasunak dituen pertsonarentzat gomen-dio bat?

Norbere beldurra eta mugak landu.

MARIA ZUNZUNEGI

Adina. 30 urte.
Herria. Zestoa.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Psikologoa.



Zer iruditzen zaizkizu Plax gisako zerbitzuak?

Beharrezkoak.

Ondo bizitzeko aholku bat?

Bizitzarekin batera mugitzen ikasi, oraina bizita.

Zer desiraten duzu?

Barneko bakea.

Hartu duzun erabaki garrantzitsu bat?

Neure buruari mugak kentzea.

Egunerokoan duzun ohitura osasuntsu bat?

Eguneroko gauza txiki/handiei garrantzia ematea.

Sexualitatearekin lotutako mito faltsu bat?

Emakumeak desirarik ez duela.

Eder egiten zaituen ezaugarri bat?

Naturaltasuna.

Laztanak jasotzeko gune bat?

Bizkarra.

Nolakoa da zure gustuko hozkada bat?

Intentsoa.

Liburu erotiko bat?

Susana Rubio Gironaren *Beauty*.

Eta film bat?

Kiki, el amor se hace.✱



haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)

Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:

Sindikatu Zaharra, 2. solairua

www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920

Hitzorduak, hilabetea: hilaren 6an

(16:00-19:00) eta 26an (10:00-13:00).



▲AMUARRAINA.

Arenasek azaldu duenez, gero eta amuarraín gutxiago dago Urola ibaian, baita Europa osoan ere. Kutsaduragatik izan daitekeelakoan dago, zergatia “argi ez” badago ere. Arenasen esanetan, amuarraína ibaiko erregea izan da, bizirik dagoen oro jaten duelako –zakelak, eltxoak...—. Dena den, orain baditu etsaiak, hala nola ubarroiak eta lertxunak. Beste zenbait arraínekin alderatuta, amuarraína “bakartia” dela dio Arenasek, eta adierazi du arrantzaleen gustukoa dela. Urola ibaia, baina, hil gabeko arrantzarako gun e izendatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak aurt en, baita Ibai-Eder ere. Hori dela eta, arrantzaleek harrapatutakoa ibaira bueltatu beharko dute aurrerantzean.

Urolako bizilagunak

Jabier Arenasek ‘Urola ibaia’ dokumentala egin du ibai horretan hartutako irudiekin. Urola ibaiko faunaren hainbat irudi ekarri ditu orriotara. 📌 Julene Frantzesena



▲ MARTIN ARRANTZALEA.

Martin Arrantzalea oso ohiko hegaztia da Urola ibaian, baina Arenasek ohartarazi duenez, ez du etorkizun onik. Izan ere, ezkailua du jaki nagusia, eta halako arrain gutxi dago Urolan. Habiak porlanezko hormentan jartzen ditu, eta zerbaitegatik du Martin Arrantzalea izena: adaxketan jartzen da eta handik aritzen da uretan ezkailutan.

► LERTXUNTZO ZURIA.

Arrain jalea da Lertxuntxo Zuria, eta batez ere, larbak, ninfak nahiz zapaburuak ditu elikagai. Negua pasatzera etortzen da Urola ibaira, udan ez da ikusten halako hegaztirik gurean. Arenasek azaldu duenez, batzuetan ibai ertzean egoten dira, arrainak harrapatzen, eta badu berezitasun bat: hankarekin harriak mugitzen ditu jana bilatzeko.





▲UBARROIA.

Ubarroiak arrain mota guztiak jaten ditu, baina arrainak bakarrik. Urolan neguan soilik ikus daiteke, udan beste toki batzuetara alde egiten duelako.

Arenasen arabera, ur azpian “zoragarri” egiten du igerian, eta potzu handiak behar izaten ditu, urperatzeko: “Ikusgarria da igerian ikustea”, azaldu du. Hego iragazkorak ditu, eta argazkian horiek lehortzen ageri da.

►ZAPOAK ETA ZAKELAK.

Zapo eta zakel ugari dago Urola ibaian. Zakel bakoitzak 3.000 arrautza inguru jartzen ditu neguan. Putzuetan-eta jartzen dituzte horiek, eta zapaburu bihurtzen dira denborarekin. Ondoren, hankak irtetean, buztana galtzen dute eta zakel bihurtzen dira. Dena den, Arenasen aburuz, “gutxitu” egin dira: “Gaztetan gehiago ikusten genituen. Ibaian kutsadurarekin desagertu egin ziren intsektuak, eta horrek ekarri du zapoen gutxitzea”.





▼ UROILOA.

Asko ugaritu dira Uroiloak Urolan. "Lepo dago", esan du Arenasek. Hark dioenez, hegazti gehienak 2000. urtearen bueltan agertu ziren ibaian; izan ere, orduan eraiki zituzten ibaiak garbitzeko araztegiak. Arenasek gogoratu duenez, Martin Arrantzaleak ikusten zituzten gaztetan, "besterik ez". Uroiloek ibaiaren erdian jartzen dituzte habiak, urez inguratutako harrien gainean. Urak gora egiten badu, baina, akabo: "Urak dena eramaten du. Baina umealdiak egiten jarraitzen dute; hiru bat umealdi egiten dituzte, agian, urtebetean".

▲ UR XOXOA

Arenasek azaldu duenez, Azpeitiko hiru lekutan jartzen dute habia Ur Xoxoek. Horietako bat da Amuko presaren atzea. Hain zuzen ere, presaren eta hormaren arteko tartetik sartzen dira uhate izandakoetara, eta han harrapakarietatik salbu izaten dira. Batez ere, ninfak, larbak nahiz intsektuak jaten dituzte, eta horiek igeri eginda ateratzen dituzte urpetik. Arenasek dioenez, hegazti "bitxia" da, baina "dezente" ikusten da Urola ibaian.



▼ URTEBETEKO PROZESUA.

Irudi bitxi bezain polita grabatu zuen Arenasek: Uroilo bat kumeari jaten ematen. 'Urola ibai' lanaren egileak azaldu duenez, "ederki" ikusten da irudia ikus-entzunezkoan. Arenasek urtebete pasatu zuen Urola ibaiaren bazterrak arakatzen, irudiak hartzen: "Naturaren ziklo osoa hartu nuen lana gauzatzeko. Izan ere, Urolara neguan etortzen dira hegazti batzuk. Horrenbestez, martxotik martxora egin nituen grabaketak". Azpeitiarra "gustura" da emaitzarekin, nahiz eta ordu asko igaro zituen ibaian urtebete horretan. Hala azaldu du egindako lana: "Lehenengo ikusten nuen zer gertatzen zen; hau da, jokaldia ikusi ostean grabatzen nuen. Kale ere egiten hala jokatuta, baina...". Zerbaitegatik dio hori urteetan ETBko kameralari izanak.✕



Inoiz baino moreago jantzi zen iaz Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Egun horretan, Euskal Herriko naiz munduko hainbat txokotako emakumeek elkar hartuta aldarrikatu zituzten beren eskubideak, heteropatriarkatu kapitalistari planto eginez. Euskal Herriko mugimendu feministak lanuzteak deitu zituen Martxoaren 8rako, eta adin guztietako milaka emakumek egin zuten bat deialdiarekin. Iazko indar erakustaldiaren ostean, indartuta dator aurtengo Martxoaren 8a. Izan ere, bat egin dute urte luzez borrokan aritutako emakumeek eta haien leluak hartzeko prest daudenek. Horien adibide dira, Miren Odriozola, Leire Ibarguren, Leire Etxaniz eta Onintza Agirre. Borroka berak elkartu ditu hainbat belaunalditako emakumeak.

70eko hamarkadan batu zen Miren Odriozola (Azpeitia, 1944) borroka feministara. Lehen urratsak ez zituen Azpeitian egin; izan ere, Bilbora joana zen lanera urte haietan, eta han hasi zuen ibilbide feminista. "Ordurako, Bilbon hasita ziren emakumeak antolatzen. 1975-76 urteetarako baziren emakume taldeak eta asanbladak, eta 1977an egin ziren lehen topaketak Leioako campusean". Ondo gogoan ditu azpeitiarrak lehen urrats haiek: "3.000 bat emakume elkartu ginen topaketetan, eta askotariko tailerrak egin genituen, abortua, tratu txarrak, sexualitatea, lesbianismoa, antisorgailuen legeztatzea eta abar gai hartuta. *Boom* bat izan zen".

Topaketa haiek, nolabait, indarra eman zie-



Leire Ibarguren, Onintza Agirre, Leire Etxaniz eta Miren Odriozola feminista azpeitiarrak.

Ardura kolektiboa da

Martxoaren 8aren atarian, lau emakume feminista elkartu ditu Uztarriak. Bizipenez nahiz borroka feministaz aritu dira. 📞📍 Maialen Etxaniz eta Julene Frantzesena



ten Bizkaiko emakumeei, eta Odriozolak gogor-tzen duenez, eztabaida handiak sortu ziren, alderdi politikoetan-eta: "Orduan, batez ere, gizonak agintzen zuten. Gaur egun ere bai, baina orduan askoz ere gehiago. Horregatik, liskar ederrak sortu ziren". Sasoi hartan, gainera, Basauriko 11 emakume espetxeratu zituzten abortatzeagatik, eta horrek ere protesta handiak eragin zituela azaldu du. "Gertaera hura zela eta, manifestazio eta borroka handiak sortu ziren 1978 eta 1979 urteen artean. Nik 80an alde egin nuen Bilbotik, borroka puri-purian zegoela". Hastapenak ez ziren errazak izan, gai asko ordura arte tabuak zirelako: "Gayen eta lesbianen eskubideen aldeko lehen manifestazio haietan oso jende gutxi izaten ginen babesa ematen. Jendea begira izaten genuen, barrez eta burla eginez. Artean

gai hura ez zegoen onartuta gizartean, askok gaixotasuna zela esaten zuten".

Odriozolak Bizkaiko hiriburuan egin zituen hastapenak, eta handik urte batzuetara, herrian, Leire Etxanizek (Azpeitia, 1978). Ordurako baziren feminismoaren munduan lanean ari ziren herritar batzuk, baina ez ziren asko. "Hasi-eran, Sanjuandegiko doktrinako lokaletan elkartzen ginen. Azkoitiar batzuekin egiten genituen bilerak astegunetan, eta batez ere, txostenak irakurtzen genituen, sozioekonomiaren ingurukoak", azaldu du. Hitz egiteko beharra zutela adierazi du Etxanizek: "Eztabaidatu egiten genuen, eta hizketan egoten ginen, beharra genuen eta". Haren arabera, "gerora" hasi ziren ekintza jakin batzuk antolatzen. "Martxoaren 8an, ekainaren 28an... zerbait egiten genuen, baina jende gutxi izaten ginen; pankarta-

EGITARAU

Martxoaren 8rako honako egitarau hau prestatu dute herriko eragileek nahiz norbanakoek.

10:30. Kalejira, Sanjuandegiko Baigera aurreko plazatzotik hasita.

12:00. Mosaiko erraldoia. plazan. Plaza Txikian jarri dute hitzordua.

14:00. Bazkaria, Azoka Plazan.

Ondoren, mahai ingurua *Feminismoaren bilakaera Azpeitian* izenburupean, Azoka Plazan.

Segidan, hainbat tailer egingo dute.

18:30. Mikro irekia, Sanagustinen.

20:00. Manifestazioa, plazatik abiatuta.

21:30. Afari autogestionatua. Norberak eraman beharko du jatekoa.

22:30-00:00. Musika udaletxe azpiko arkupeetan.

Egun osoan umeen zaintzarako gune bat jarriko dute.

ri eusteko lain, eta beste bi lagun". 90eko hamarkadaren bigarren erdian Izarraizpeko Sorginak taldea sortu zuten Azpeitian, eta urteetan izan zen martxan talde hura.

Leire Ibargurenek (Azpeitia, 1979) ezagutu zuen Izarraizpeko Sorginak taldea. "Gaztetxoa nintzela, erreferentea izan zen talde hura niretzat. Bilera batzuetara joan nintzen, baina unibertsitate garaian deskonektatu egin nuen". Gerora, baina, Bilgune Feministaren bidez izan zuen feminismoan murgiltzeko aukera. "Emakume izateagatik guri buruzko aurreikuspen batzuk egiten dituzte, eta hori gure gorpuzetan eta gugan bizi dugu. Beldurra sartzen dizkigute, jokatzeo modu zehatz batzuk izatera behartzen gaituzte... Badira gure genero identitateari ezarritako aurreiritzi batzuk, eta horrek sortutako deserosotasunak edo ego-nezinak eraman gaitu horiek denak zalantzan jartzera". Ibargurenek azaldu duenez, zalantzan jartze hutsagatik "bereizkeria" sentitu izan dute: "Hain zuzen ere, feminismoan aurkitu dugu espazio bat, zeinatan ulertzen genuen zapalkuntza horiek zergatik ari zitzaizkigun gertatzen eta ikusten genuen sentipen horiek ez zirela pertsonalak". Hark dioenez, kolektiboki antolatzeko eta elkarrekin hausnartzeko aukera eman die feminismoak: "Zapalkuntza horri aurre egiteko bidea izan da".

Odriozola, Etxaniz eta Ibarguren baino dezentente gazteagoa da Onintza Agirre (Azpeitia, 1993), baina hark ere sentitu du bizitako zapalkuntzak partekatzeo eta horiei aurre egite-

ko antolatze gogo. "Ezagutzen nituen mugimendu feministako kideak eta banuen gaierikiko gertutasuna, baina Gasteizen murgildu nintzen feminismoan, 18 urte nituela". Hark dioenez, beren garaian feminismoari lotutako "olatu bat" etorri da, aurretik egindako lan guztiaren ondorioz. "Feministok beste leku bat hartu dugu gizartean, bestelako zilegitasun bat, eta gu horren emaitza gara". Agirrek adierazi duenez, feminismoa "transbertsala" da, eta horregatik talde feministetan ez ezik, beste hainbat sektoretan ere hausnartu dute feminismoak duen paperaz. Unibertsitate ikasketak bukatuta itzuli zen Agirre Azpeitira, baina orduan ez zegoen talde feministarik herrian. "Bi urte ziren Bilgune Feministak ibilbidea bukatu zuela, eta hutsunea nabaritzen genuen herrian. Zerbait egin nahi zuen gazte pila bat zegoen, baina tresna falta zen. Hori geuk erai ki behar genuenez, Basanderiek asanblada feminista sortu genuen beharrei erantzuteko, kanpora begira aldaketa txikiak emanda Azpeitian eragiteko eta geu formatzeko".

Lau emakumeak bat datoz feminista identitate "oso eroso ez" dela izan esaterakoan. Izan ere, Ibarguren oroitu duenez, jendeak "exageratuak eta histerikoak" zirela esaten zien. "Denbora asko pasatzen genuen jendea-ri zapalkuntza hori bazegoela ulertarazten, datuak ematen... Feminismo arrazionala egiten aritzen ginen; hau da, azaltzen zergatik ginen feministak eta zergatik behar zen mugimendu feminista". Etxanizek "mespretxua" ere aipatu du. "Gure garaian, are gehiago", erantsi du Odriozolak. "Sasoi hartan uste zen feminis-



||| "Feminismoak eraiki du espazio bat kolektiboki eta pertsonalki borroka egiteko eta gizartea eraldatzeko"

LEIRE IBARGUREN

feminista

moa emakume burgesen kontua zela, eta gero gauza bera bizi izan nuen Latinoamerikan". Ibarguren aburuz, borroken iherarkizazioagatik egon da feminismoa gutxietsita. "Baziren lehentasun gehiago zuten borrokak jendearentzat".

Garai haiek ez zituen bizi izan Agirrek, baina hark azaldu du orain presentzia "handia" hartzen ari dela feminismoa. "Kapitalismoak ikusi du feminismoa kalte egiten ari zaiola, eta horri buelta eman nahi dio. Kontsumorako eduki bihurtzen eta hari edukia galarazten saiatzen ari da, eta hain zuzen ere, hori da guk dugun arriskueta bat. Mantendu egin behar dugu aldarrikapeneta eta mundua eraldatze horretan". Odriozolak ere sumatzen du feminismoa "pixka bat desitxuratzeko" nahi hori. "Instituzioek eta gizarteak aldarrikapen batzuk bereganatu dituzte, eta behar bada, pixka bat arindu dira borrokak eta aldarrikapenak".

Aldatu da borroka

Feminismoa kanpora begira nahiz barrura begira lantzen den zerbait dela azaldu dute emakumeek, baina borroka moldeak "asko" aldatu direla dio Etxanizek. Odriozolak ere hala uste du: "Gure garaian legez kanpo egiten ziren protestak, eta askoz gogorragoak ziren borrokak. Izan ere, gaur egun, kaxotx artean bada ere, gauza batzuk behintzat onartuta daude". Ibarguren aburuz, militantzia eredu ere aldatu egin da. "Garai batzuetan errepresio egoera latza zen, eta horrek eramaten gintuen militatzeko modu jakin batzuetara, gaur egun baino modu zurrunagoetara. Bere alde onak eta txarrak zituen horrek, baina feminismoak jakin du militantzia eredu hori malgutzen eta goxatzen nahiz herritarrentzat militatzeko espazioak sortzen".

Agirreraren ustez, feminismoak "izugarritzko eraldaketa pertsonala" eragiten du, eta hori mantendu egin da urteetan. Hala dio Ibarguren ere: "Feminismoak eraiki du espazio bat kolektiboki nahiz pertsonalki borroka egiteko eta gizartea eraldatzeko, baita norbere ongizatean eragiteko ere". Agirrek azaldu duenez, kaleko presentziaren formak aldatu dira, eta uste du oraindik ere "asko" dagoela egiteko. Ildo beretik hitz egin du Etxanizek ere: "Gure garaian Martxoaren 8ko kontzentrazio bat egiterako... Urteetan hiriburuetara joaten ginen herrietako emakume taldeetako kideok. Geroa antolatuta genuen lehen elkarretaraztea. Gaur egun, berriz, herri guztietan egiten da".

Odriozolak bizi izan zuenetik hona, egoera "ikaragarri" aldatu dela uste du. "Sasoi hartan antisorgailuak legez kanpokoak ziren, dibor-



||| "Kapitalismoak ikusi du feminismoa kalte egiten ari zaiola, eta horri buelta eman nahi dio"

ONINTZA AGIRRE

feminista

tzioa ere bai... Egun normaltzat ditugun gauza asko ez ziren legezoak. Gainera, frankismo garaia izanik, borroka formak ere oso desberdinak ziren. Bestelakoa zen egoera, oraingoaren oso desberdina, baina emaitza asko eman zituen, jarraipena eduki zuen eta gauza pila bat lortu ziren". Hala eta guztiz, Odriozolak gogorarazi du gaur egun ere orduko eztabaida berak badirela mahaiaren gainean.

Zapalkuntzak, hainbat

"Tratu txarra da arazo larrietako bat. Lehen ere baziren kasuak, baina gaur egun goa amaitu ezina da", Odriozolaren arabera. "Garai batean, agian, normaltzat hartzen ziren tratu txarrak; edo ez ziren salatzen", erantsi du Etxanizek. "Soldata arrakalak ere egoera berean segitzen du", adierazi du Odriozolak. "Eta zaintza ere aipatzekoa da", Agirrek. "Aurtengo greba zaintzari lotutakoa da, zaintzaren kolektibizazioa du helburu nagusietakoa", gaineratu du hark. Eta beste arazo bat ere aipatu du: rolen eraikuntza. Izan ere, Agirreraren ustez, ikusi besterik ez dago norbere burua eraikitze-rakoan sistema patriarkalak ezarritako ezaugarriak nola txertatzen diren: "Horiek erreproduzitzen ari gara etengabe". Haren ustez, horretan ere jarri behar da fokua: "Genero eraikuntzako rolak ere pixkanaka aldatu egin behar ditugu".

Zaintzaren jarri dute arreta Ibarguren eta Etxanizek, azken horren arabera, "askotan jabetu ez arren", etxe guztiak "ukitzen" dituen gaia delako. "Zaintzak gure egunerokoa zeharkatzen du, etxean baititugu zaintza beha-

rrak. Kapitalismoaren tranpetako bat da pertsonak izaki autonomo eta independente gisa irudikatzea, baina pertsona interdependenteak gara eta elkarren beharra dugu", esan du Iburguren. Haren ustez, instituzioek ez dute gaia "arduraz" hartzen, eta emakumeen gain erortzen da zaintzaren ardura: "Askotan, gainera, ordaindu gabeko lanak izaten dira, maitasunaren izenean egiten direnak, eta ordaindutako kasu askotan ere, ikusi besterik ez dago emakume migranteekin nola jokatzeko den".

Zaintzari lotuta, "oso axaleko" gauzak soilik aldatu dira Odriozolaren ustez. "Gure garaian ez zen ikusten gizon bat bere umea paseatzeko; ez zen ikusten gizonik erosketak egiten. Gaur egun, etxean garbigailua jartzen dute martxan, egiten dituzte gauzak, baina lanen ardura, oro har, emakumeena izan da beti". Udalak egindako Denboraren Erabilerari buruzko ikerketa ekarri du gogora Etxanizek: "Ordu jakin batean zertan ari ziren galdetu zieten herritarrei. Emakume gehienek paseatzen ari zirela erantzun, eta beste zerbaitean ari al ziren galdetzean, ezetz esan zuten. Gizonek, berriz, 'haurra zaintzen' erantzun zioten lehen galderari, eta bigarrenari, 'paseatzen'. Dirudienez, emakumeek zaintza ez dugu lan bezala hartzen; gizonek, berriz, bai".

Iburguren ere antzeko iritzia dauka: "Gizonak lehen baino denbora gehiago pasatzen dute umeekin, baina aisialdiko denbora izaten da askotan. Hau da, mendira joaten da haurra rekin, adibidez. Umea gaixo dagoenean ez du aitak eramaten medikuarenera, edo amak eskatzen du harekin etxean gelditzeko baimena



||| "Askotan jabetu ez arren, etxe guztiak ukitzen dituen gaia da zaintza"

LEIRE ETXANIZ
feminista

lanean. Gizonak, batez ere, zaintzaren alde atseginarekin konektatu dute".

Iazkoa, mugarri

Emakumeen Nazioarteko Eguneko greba feministak indarra hartu zuen iaz. Euskal Herriko zein munduko hainbat txokotan jendetza irten zen kalera, emakumeen eskubideak aldarrikatzera. Iazko grebak "jendearekin konektatu" zuela uste du Iburguren: "Batetik, zaintzaren gaiak egunerokoan ukitzen duela jendea, eta bestetik, emakumeen aurkako indarkeria sexista salatzeke beharra eta gogoia zegoelako". Bat dator Etxaniz ere: "Nazkatuta gaudela esateko gogoia nabaritzen zen, eta hainbat kulturatako, adinetako eta arrazatako jendea ikusten zen mobilizazioetan". Gainera, planto egiteko deialdiak era guztietako erreakzioak eragin zituen. Iburguren ustez, grebak sortutako gauza "interesgarrienetakoak" eztabaidak izan ziren: "Ezagutzen ditudan bikote heterosexual umedunek izugarrizko eztabaidak izan zituzten. Emakume askok egin zuten planto, eta erabakiak haserreak eragin zituen. Gizon asko deseroso sentitu ziren, eta uste dut deserosotasuna gauza interesgarria dela. Izan ere, gizonak deseroso zergatik sentitzen diren eta deserosotasun horrekin zer egin behar duten hausnartzeko modu bat da".

Datorren Martxoaren 8a noiz iritsiko zain daude lau emakumeak. Agirre "gogotsu" dago grebak izango duen erantzuna ikusteko: "Aurten 24 orduko grebaren aldeko apustua egin da. Iazko esperientzia ikusita, uste dut aurten jende gehiago animatuko dela mobilizazioetan parte hartzera, baina aldi berean, badituzte zalantza batzuk. Izan ere, kontsumo greba proposatzen da, eta ea nola ateratzen den hori. Apustu latza da". Iburguren azaldu duenez, emakumeak geldituz gero "kaosa" sor daitekeela erakutsi nahi dute grebarekin. "Orain arte emakumeek egin ditugu zaintza lanak eta etxeko lanak. Baina gizarteari erakutsi behar diogu na da egiteko horiek alde batera utziko bagenu zer gertatuko litzatekeen, gure lana ikusarazteko", azaldu du Odriozolak. "Errealitatea da emakume batzuek ezingo dutela greba egin, eta errealitate horiek nola ikusarazi ere pentsatu behar da", gaineratu du Iburguren. Eta horren harira, adineko pertsonen zaintzak "zalantza" sortu duela esan du Agirrek: "Zaharren egoitzetan lan egiten duten pertsona gehienak emakumeak dira, baita etxeetan zaintza lanak egiten dituzten gehienak ere. Emakume horiek ziurrenik ezingo dute grebarik egin".

Aurten pentsiodunek, zaintza lanek, solda-



||| "Saso hartan, egun normaltzat ditugun gauza asko lege kanpokoak ziren: antisorgailuak, dibortzioa..."

MIREN ODRIOZOLA
feminista

ten arrakalek eta kontsumoak "presentzia berezia" izango dute grebaren deitzaileen aldarrikapenetan. Baina eskaera nagusia "bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa" da. Horregatik, gaur-gaurkoz feminismoaz hausnartzeko beharra dagoela uste dute azpeitiarrek. Hala dio Etxanizek: "Herri Hezitzailearen gaineko azterketaren emaitzen arabera, herriko eragile guztiak dute beren burua feministatzat eta parekidetzat. Baina zer ulertzen ote da feministaz edo parekideaz? Eragileon arteko mahai inguru egitean, denok jabetu ginen gaiaz hitz egiteko beharra dagoela; hau da, beharra dago batzuek nahiz besteek feminismoaz zer ulertzen dugun jakiteko". Dena den, Odriozolak ikusi du aldaketarik feminismoaren ulkeran: "Gaur egun, feminismoaren barruan pentsaera ezberdinak egonagatik, uste dut gehiago errespetatzen dela aniztasuna. Lehen oso talka handiak izaten ziren. Orain uste dut ikasi dugula gauzak pixka bat lasaiago hartzen". Emakumeek elkartzeko erakutsi duten gaitasuna azpimarratu du hark: "Izugarria da oinarri komun batzuk jarri eta Martxoaren 8koa bezalako deialdiak egitea mundu osoan. Izugarria da elkarrekin mobilizatzeko gai garela erakustea". Agirreraren iritziz, ulkerak edo iritzi ezberdinak trukatzeko "beharrezkoa eta osasuntsua" da.

Grebaren atarian, Odriozolak, Etxanizek, Iburguren eta Agirrek kalera ateratzeko deia egin diete herriko emakume guztiei, "elkartzeko beharra" azpimarratuta. Gizonei, aldiz, "dagozkien ardurak" betetzeko eta "etxean esku hartzeko" eskatu diete. "Ez soilik Martxoaren 8an, egunero baizik".*

Ametsak, amu

Amesten eta oroitzapenetatik bizitzen lagundu dio arrantzak Jose Manuel Asiaini. Mundu zabalean praktikatu du kirol arrantza azpeitiarrak. 📝📍 Ane Olaizola

Ameslari bat naiz. Ametsik ez dudan eguna, hilda nagoen eguna izango da". Hala dio Jose Manuel Asiainek (Castejon, Nafarroa, 1948). Kirol arrantzaren zale porrokatua da azpeitiarra, eta amesten amuan harrapatuta eraman du bere bizitzaren zati handi bat. Izan ere, munduko bost kontinenteetako uretan arrantza praktikatzeko aukera izan du, bere pasioak hala bultzatuta. "Munduan zehar arrantzan ibiltzeko amets egiten lagundu dit zaletasun honek; bidaietatik itzultakoan, berriz, esperientziak oroitzen bizi izan naiz".

Heriotzarik gabeko euli-arrantza praktikatzen du Asiainek; izan ere, itsasoan izan ezik, gainerako lekuetan arrainak bizirik itzultzen ditu uretara. Garaiko beste asko bezala, gaztetxoa zela Urola ibaian hasi zen arrantzan, eta inguruko ibaietan indartu zuen bere zaletasuna. "Telebistan ikusten nuen beste herrialde batzuetan hemen baino gehiago arrantzatzen zela, eta orduan hasi nintzen kanpora ateratzen". 44 urte inguru zituenean bidaiatu zuen aurrenekoz urrutira; Errusiako Kola penintsulara joan zen arrantzara, eta han baieztatu ahal izan zuen telebistan entzuna zuen hura. "Berriz Kolarat itzultzeko irrikaz bueltatu nintzen etxera. Zeharo katigatu nintzen".

Ordutik, mundu zabalean ibili da Asiain, batez ere, amuarrainen eta izokinen arrantzan, eta antipoden lekuko ere izan da azpeitiarra: Islandia, Norvegia, Bosnia, AEB, Kana-



Jose Manuel Asiain.

da, Kuba, Galapago uharteak, Mongolia, Ginea Bissau eta Zeelanda Berria zerrenda amaigabeko herrialde batzuk besterik ez dira. Lagun artean nahiz bakarka ezagutu du mundua, eta klima eta inguru egokia duten eta arrain asko dauden herrialdeak izan ohi ditu jomugan. Ia beti, gainera, aurrez prestatu ohi du bidaia. "Lehendabizi, arrantza egiteko eskubideak erosi eta hango ostata hartzen dugu". Behin hara iritsitakoan, hainbat modutan egiten ditu egonaldiak. "Txilen, esaterako, laku baten ondoan zegoen hotel batean izan ginen; Errusian, berriz, soilik helikopteroz irits zitekeen kanpin denda handietan egiten genuen lo. Mongolian, buruan genuen ibaira iristeko 48 ordu egin genituen Jeep batean". Bidaioi "magikotzat" ditu azpeitiarrak. "Errusian, zirkulu polarretik gertu, egunak luzeak dira. 04:00etan komunera joateko jaiki eta ikusten duzu eguna dagoeneko argi dagoela. Gauerdian ere izugarrizko eguzkia dago. 'Orain, ohera joan behar al dut?', galdetzen duzu halakoetan".

Hitz bakarrean azaldu du azpeitiarrak



Asian Mongoliara egindako bidaietako batean.

||| **DATUAK** |||||

5 kontinenteetan. Herrialde ugarietan egin du arrantza Asiainek. Zerrenda amaitezina du: Frantzia, Eskozia, Irlanda, Norvegia, Suedia, Errusia, Bosnia, Islandia, Polonia, Portugal, AEB, Alaska, Kanada, Kuba, Mexiko, Jamaika, Ekuador, Txile, Galapago Uharteak, Venezuela, Brasil, Argentina, Egipto, Ginea Bissau, Mongolia, Zeelanda Berria, Hawaii...

arrantzak sentiarazten diona: poza. Arrantzan hasten denean, munduarekin deskonektatzen duela aitortu du, eta orduak igaro ditzake horretan: "Lagunek askotan ohartarazi izan naute. 'Manolo, bazkaltzeko ordua da!'. Baina halako gustura egoten naiz arrantzan... Une horretan jateak garrantzirik ez du izaten. Eta nahiago izaten dut arrantzan segitzea. Halako asko egin ditut". Gainera, adierazi du berak praktikatzen duen arrantzarako sasoian egon behar dela. "Oso dinamikoa da, une oro ari baitzara mugitzen. Ia atleta bat izan behar duzu arrantzan egiteko, ibai ondoan ordu ugari igaro behar dituzu eta. Niri, behintzat, hala egotea gustatzen zait".

Asiainen arabera, afizio bera duten arrantzaleek zera nahi izaten dute: "Joaten diren lekuan, arrantzan ariko den lehen arrantzalea izango dela sentitu behar izaten dute". Esklusibotasun hori da, besteak beste, arrantzalea

munduaren bestaldera joatera bultzatzen duena, baina horrek prezio bat du, eta ez edonolokoa. "Espainian, esaterako, ibaiak libreak dira, eta lizentzia duen orok egin dezake arrantza. Beste herrialde batzuetan, berriz, ibaiarekin muga egiten duten lursailen jabee-nak dira arrantza eskubideak, eta kasu horretan, jabeari ordaindu egin behar zaio. Horrez gain, herrialde batzuetan ibaiak libreak diren arren, hara iristeko zeharkatu behar dituzun lurren jabeei kanon bat ordaindu behar izaten diezu". Gainera, arrantza eskubideengatik ordaindu beharreko diru kopurua "gehiegizkoa" dela nabarmendu du: "Norvegiako Altaeva ibai ezagunean, esaterako, egun bateko arrantza eskubideak 6.000 euro balio ditzake. Islandia ere leku aparta da izokinak harrapatzeko, baina hura ere zeharo garestia da. Hain da garestia, non eskubideak bi pertsonen artean partekatzen dituzten. Batek arrantzatzen duen bitartean, besteak begiratu egiten du, eta txandakatu egiten dira gero".

Garestia izanagatik, badago kirol arrantza-ren bueltan sortu den merkatuari erantzuten dion jendea: "Zenbait lekutan, denborarekin ibiltzen ez bazara, ostatu hartzeko eta txalupetan ibiltzeko lekurik ez duzu topatuko". Dena den, Asiainek nahiago du ur xumeagoe-tan bustitzea, horietan ere badagoe-lako zer harrapatu. "New Jersey (AEB), esaterako, azaro aldean, milaka lupi egoten dira hondartzetan. Hango arrantza, librea izateaz gain, egonaldia ere merkea izaten da".

Zorionekoa sentitzen da bere afizioak ahalbide-tu dionagatik, eta arrantzak adiskide berriak egiteko aukera ere eman dio azpeitiarra-ri. Kanadara egin zuen bidaietako batean eza-gutu zituen gerora egin dituen bidaietan ondoan izan dituen lagunak, eta han egin zuen topo Canal Digital telebista kateko kamelara-ri batekin ere. Harreman hartatik abiatuta, Canal Digital telebista kateko *SeaSons* arrantza saioan agertu izan da azpeitiarra hainbat alditan: "Zortea izan dut asko arrantzatu dudalako, eta arrantzan zein elkarrizketak egiten grabatu izan naute".

Egun jubilatuta dago Asiain, eta hark esan duenez, "denborak bere lekuan jarri" du. "Arras pobrea bihurtu naiz erretiratu naizenetik. Plan gutxi egiten dut orain", dio barrez. Arrantzarako euliak egiten aritzen da azpeitiarra, baina bien bitartean, desioek ez dute etenik haren buruan. Argentinako Rio Grande hiria, Patagoniako Strobel lakua, Siberiako iparraldean dagoen Kamchatka penintsula... Amu tentagarriegiak dira horiek ametsetatik esnatzeko.✱

Eskaintza ezin hobe, leku paregabe

Alberdienean eraikitzen ari diren etxebizitzak lanak zein haien salmentak erritmo onean doaz, eta oraindik badute herritarrek etxebizitzak erosteko aukera. Herrigunean kokatuta daude, eta kalitate onekoak dira. Altuna y Uria ari da etxebizitzak eraikitzen, eta Izarraitz Inmobiliariara jo dezakete interesatuek.

Zer motatako etxebizitzak dira?

Hiru etxebizitza mota daude: logela batekoak, bikoak eta hirukoak. Gure asmoa izan da askotariko etxebizitzak egitea. Izan ere, jende gehienak hiru logelakoak nahi izaten ditu, baina badaude bi logelakoak nahi dituztenak ere. Etxebizitza batzuk Olazko Andre Mariaren plazara begira daude, eta besteak ibaiaren aldera.

Zer berezitasun dituzte?

Etxebizitzak kalitate onekoak dira, eta leku paregabean daude. Izan ere, herrigunearen erdi-erdian daude, baina aldi berean, ez da etxarte bat, gunea eguzkitsua eta zabala baita. Horrez gain, herriko zerbitzu guztiak eskura izango dituzte bizilagunek. Azpian, gainera, garajea ere izango dute, eta horrek izugarritzko erosotasuna emango die; Alde Zaharreko etxe gutxi daukate aukera hori. Eskaintza honek, halaber, badu beste berezitasun bat: etxebizitzak norberaren gustura jartzeko aukera. Etxebizitzak eraiki aurretik erosiz gero, haren distribuzioa zein materiala egokitu ahal izango dute erosleek. Egokitzen hori nahieran egin ahal izango dute, ez aukera mugatu baten barruan.





Alberdi-eneA

zure etxerainoko zubia

Horrez gain, prezioaren barruan, guztiz hornitutako sukaldea ere izango dute.

Noizko egongo dira amaituta?

Lanen hasiera kostatutakoa izan da, hango luraren ezaugarriengatik eta kokatuta dagoen lekuarengatik. Baina lur azpiko solairuak egin dituztenetik, oso azkar ari dira eraikitzen etxebizitzak. Espero dugu datorren urteko udarako erosleek giltzak eskuratzea.

Salduta al daude etxebizitza guztiak?

Salmentak martxa onean doaz, baina badaude oraindik logela bateko, biko zein hiruko etxebizitza batzuk salgai, bai ibai alderakoak, baita Olazko Andre Mariaren plazara begirakoak ere. Hiru logelako etxebizitzak, sukaldearekin, 229.000 eurotik aurrera eros daitezke.

Harremanetarako: Jose Artetxe kalea 8, behea (Azpeitia)/ 683 70 47 50/ www.alberdienea.com



Loiola
Espacios para vivir



Loiola, festetarako pronto

Loiola auzoan San Jose festak ospatuko dituzte hilaren 15etik 19ra bitartean. Aurten, asteartean egokitu da San Jose eguna, eta auzotarrek orduan izango dute jaietako egun nagusia.  Ane Olaizola

Badatoz, urteroko legez, Loiola auzoko festak. Hilaren 15ean, ostiralean, abiatuko dituzte Loiolan ospatzen dituzten San Jose jaiak, eta azken urteetan hutsik egin ez duten ekitaldiek hartuko dute hango egitaraua. Ostiralek asteartera bitartean iraungo dute festek, eta trikiti doinuekin agurtuko dituzte hurrengo urtera arte jaiak.

San Jose Mus Txapelketaren zazpigarren edizioarekin hasiko dituzte sanjoseak. 22:00etatik aurrera, Kiruri jatetxean elkartuko dira txapelketan parte hartuko dutenak, eta bikote bakoitzak hogeituro ordaindu beharko du izen-ematea. Hurrengo egunean, berriz, Loiolako Festa Batzordeko kideek antolatutako bizikleta martxa egingo dute inguruko mendietan barrena. Hain zuzen ere, 09:00etan Loiolatxo elkartearen aurretik aterako dira mendi ibilbidea egitera txirindulariak.

Asteartea, egun nagusia

Ohi bezala, festetako egun handiena San Jose egunean izango da. Aurten asteartea egokitu da egun hori, eta beste urte batez, egitaraua bete prestatu dute egun horretarako. Goizean, 11:00etan, zezen txikiekin eta poniekin hasiko dute eguna, eta eguerdian, 13:00etan, tradizio

DATUAK

||| **Zer.** San Jose festak.
||| **Eguna.** Martxoak 15, 16 eta 19 (ostirala, larunbata eta asteartea) ||| **Tokia.** Loiola auzoa.
||| **Antolatzailea.** Loiolako Festa Batzordea eta Azpeitiko Udala

bihurtu diren asto karrak egingo dituzte. Sanjoseako beste ekitaldi entzutetsuetako bat herri kirol erakustaldia izango da, eta saio horrek ere ez du hutsik egingo. Egun osoan zehar, gainera, puzgarriak egongo dira basilikaren aurrean, eta jolasak egingo dituzte umeentzat. Egurra aita-semeek, berriz, trikiti doinuekin girotuko dute auzoa eguna ilundu bitartean.

SANJOSEAK LOIOLAN

3 egun. Martxoaren 15ean, 16n eta 19an ospatuko dituzte aurtengo festak, eta ohiko egitasmoak prestatu dituzte festa batzordeko kideek egun horietarako.



Iazko Loiolako San Jose jaietako irudia. ||| **Uztarria**

BESTERIK

1 Gari, Montxo eta Joselontxo

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazo klasikoek 'Txirinbolo' ikuskizuna eskainiko dute.

||| **Eguna.** Martxoak 9 (zapatua).

||| **Ordua.** 16:30 ||| **Tokia.**

Soreasu antzokian.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

2 Maratoi erdia, Garcia oroitzeko

Txapelkun historiak leloarekin jokatuko dute Diego Garciairen omenezko XXVI. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia.

||| **Eguna.** Martxoak 30

(zapatua). ||| **Ordua.** 16:15.

||| **Antolatzailea.** Xeye taldea.

3 'Haria' taularatuko dute

Eñaut Elorrietak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoko bost lagunek osatzen duten Kaabestri String Ensemble taldeak kontzertua emango dute, harizko musika tresnekin doinu klasikoetan murgilduz.

||| **Eguna.** Martxoaren 23a (zapatua). ||| **Ordua.** 22:00

||| **Tokia.** Soreasu antzokia.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda



Instalakuntza Elektrokoak
Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaargilanak@gmail.com www.ikainstelmak.com
20730 AZPEITIA



AIZPURU AUTOAK
PREZIOEN KONTROLATZAILEA

Tel: 943 81 23 89 aizpuru@aizpuru.net
Fax: 943 81 22 88 www.aizpuru.net
Arretxo 17, 20730 AZPEITIA

“Eta orain euskaraz, Pello” (IV)

Aldian –aldian, hiru artzain bizi ziren txaboletara joaten zen Pello, mugaz haraindi, hain zuzen, Okabe mendi magalera. Bata gaztea, apaiza; bestea, *El Ruso* deitzen ziotena, urtetan sartua; eta hirugarrena, berriz, ardoaren aski lagun mina.

Artzain-apaiza zeharo itxura onekoa omen, galant aparta alegia, eta neska andana joaten omen zitzaion prozesioan! Pello lekuko. *El Ruso*, berriz, bizitzan malur gehitxo jasan-dakoa: Bigarren Mundu Gerratean alemaniarrek atxilotu, eta, haien menpe zegoela, Errusiara bidali zuten borrokara; eta berriro atxilotua izan zen, kasu horretan sobietarren atzaparretan erorita. Artzainen arteko liskarrak is-tilutsuak ziren nonbait, eta Pellok borrokan ere ikusi omen zituen ardozalea eta *El Ruso*.

“Udan, txabola utzi eta Garaiko baserri batean igaro nian hilabete pasa, hango familiarekin, baserriko lanetan lagunduz eta. Etxean erderaz hitz egiten ziaten, baina pasadizo bitxi bat kontatuko diat horren inguruan. Aita UPNkoa zuan. Bada, beste guztiak oheratzen zirenean esaten zidaan: ‘Orain euskaraz egingo dugu, Pello’. Euskara ahaztu samar eta moteldua zian, baina harrigarria duk hilabetea nola berreskuratu zuen”, dio Pellok. Ia berrogei urte igaro dira eta esker onez eta nostalgiaz gogoratzen ditu hango guztiak. “Zenbat ikasi nuen beraingandik... Naturaren onuraz zenbat zekiten eta horretaz zenbat baliatzen ziren... Mikel Zabaltzaren attek kontatutakoaz harrituta gelditu ninduan. Badakik teilatuan zer estalkiz baliatzen ziren? Zurezko xaflez; oker ez banago, pagarenak. Ahalik eta berdinenak egin, teilak bezala txukun-txukun elkartu, eta listo! A, eta txundigarriena: 50 urte pasatu ondoren, xaflei buelta eman, eta beste hainbeste irauten omen ditek”.

Masustak

Jateko kontuetan ere ikaragarri ikasi omen zuen. “Baso batek ematen duenarekin, erre-



luis gurrutxaga

“Zenbat ikasi nuen eurengandik... Naturaren onuraz zenbat zekiten eta zenbat baliatzen ziren...”

ge bezala biziko haiz. Perretxikoak, hurrak, masustak, amuarrairak –gainera, guardak erakutsi zidaan nola harrapatu–, gaztainak... Eta kilo bat dilistarekin, hamabi otordu daukak. Jo, baina masustekin gogoratzen nauk gehien. Gosaltzen, a ze pila jaten nuen!”. Hauxe bai hauxe, Robinson Crusoe!

– Eta garbitze kontuak? Ze nik gau bat pasatu nian txabola hartan, eta kedar usaina kentzea... puff! Kar, kar kar. Izan ere, neguan eta, jakina hogeita lau orduez beheko sua martxan eduki behar, Pello.

– Ba imajina ezak: hik gau bat, eta ni han bizi...! Beno, errekatxoa ondoan nian eta hura zuan erremedioa. Ez zaidak ahazten, ilea biguntzea zenbat kostatzen zitzaidan, kar, kar, kar!

Zakutoan oraindik gelditzen zaigu gure lagunaren hainbat kontakizun, eta azken atalerako utziko ditugu: egunerokoa, beldurak nola kudeatu zituen, ateratako ondorioak, itzulera nolakoa izan zen, eta, batik bat, burutu zuen ikus-entzunezko ekoizpen interesgarriaren kontaketa.✱



HITZ GEZIDUNAK

	Garaikur mota		Deitura		Pl., lotarako arropa		Emakume izena		Bizkaiko ibaia
	Ekonomia sistema		Pintatua		Nauka		Selenioa		
	Lekuak, aurkintzak								
	Kristalak, leiarrak								
Bozkairio		Barrunbea					Kasik		
Izena		Jasan					Esanarazi		
				Garen hauek		Minerala			Sustrai
				Nitrogenoa		Txakur			
Zornotzako herritar								Azkenekoa	
Handitu								Laiarien lanabesa	
				Ahula, erkina					
				500					
Oinazetuak							Putre		
Denbora							Jainko egiptoarra		
				Arabako udalerria					
				Bokala					
Neukake					Fruitu mota				

Egilea: Luma

* Euskara zuzentzaile azpeitiarra

SUDOKUA

2		9		5				
8					2	9		7
	6				8			
9	4				5		8	
3			8		4			1
	5		3				2	9
			5				9	
1		4	2					5
				4		1		2



Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK |||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin

1. Poztasuna. 2. Emakumezkoen azpiko arropak. 3. Gure herriko jakintza taldea. Uranioaren ikur kimikoa. 4. Kontsonantea. Azkenekoa eta lehenengoa. Bi bokal. Bokalik gabeko dirua. 5. Aberkoia, aberria maite duena. 6. Jaurtiketa. Bokal mehea. Espainiar estatuko alderdi politiko baten siglak. 7. Bokala. Egokia, aukerakoa. 8. Germanioa balio du. Bizkaieraz, omen. Ez zuzen, gaizki. 9. Irudi ortodoxa. Gabezia. 10. Guraso arra. Urri.

Goitik behera

1. Apalak dituen altzaria. 2. behar, egiteko. Lehenengo zenbaki bikoiti. Eguzki. 3. Gisara, modura. Ogi, hitz elkartzeetan. 4. Galtzen den azkenekoa, esperantza. 5. ... gabe, gelditu gabe, gaure anai ipartarrek dioten gisara. Kontsonantea. ... de Janeiro, Brasilgo hiri ezaguna. 6. Elementu kimiko baten edo gehiagoren disoluzio solido. Lehen biak. 7. Etxe baten azpian, lurraren mailatik behera dagoen gela edo tokia. Italiako ibaia. Bokala. 8. Bizkaitarren bikea. Toka, lioke. 9. Sodioa balio du. Ezdeusa. 10. Alokairua. Aranondoaren fruitu.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

||| HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK

BIDALTZEKO EPEA. Martxoak 25 (astelehena) ||| NORABIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali.

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

●	A	N	A	R	A	●	E	K	U	N	●
N	I	A	R	U	G	A	●	A	T	E	B
I	A	S	●	K	A	U	D	N	I	M	●
A	L	A	K	A	X	T	●	I	Z	A	H
Z	●	R	A	Z	T	O	N	O	Z	●	
●	A	E	M	●	U	G	●	E	N	O	I
A	I	●	A	U	R	R	A	●	G	●	
K	A	A	J	A	R	A	P	●			
O	M	S	I	N	U	M	O	K			
●	A	●	P	●	G	●	K	●			

SUDOKUA

2	3	1	6	4	9	6	7	5	8	5	7
5	9	6	5	7	8	3	2	1	9	4	6
4	9	4	1	7	9	6	3	2	5	8	7
6	9	2	4	1	6	3	8	5	7	1	4
1	7	1	4	5	7	1	6	8	9	4	5
6	8	3	5	3	8	6	4	1	7	2	5
3	1	3	7	8	2	1	6	5	9	7	8
5	7	5	2	9	5	7	4	6	3	4	8
8	4	8	6	4	8	2	7	9	1	5	3

||| UZTARRIAREN OTSAILEKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Alberto Frantzesena Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 213. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

ELKARRIZKETA ||||| Libe Aranburu bikoiztailea

“Euskaraz bikoizterik ez dela behar uste badute, esan dezatela”

||| Duela hamabost urte hasi zen Libe Aranburu (Azpeitia, 1982) hainbat pertsonairi ahotsa jartzen. Lan baldintza eskasak tarteko, lanuztea hasi dute Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteko kideek.

Zein da bikoiztaileon egoera?

Azken urteetan, bikoiztaileon lanaren salneurriak izugarri jaitsi eta lan baldintzak ikaragarri kasartu dira. Elkartea sortu dugu gure lana ez dagoelako araututa Euskal Autonomia Erkidegoan, 90ko hamarkadaz geroztik ez dagoelako bikoizketaren gaineko inolako legerik. Hori baliatuta, enpresek tarifen eta ordainsarien jaitsiera guztiak automatikoki ezartzen dizkigute defentsarik ez dugun langileoi. Pentsa, greba egiten ari garela esatea ere ez da zuzena. Badugu greba egiteko eskubidea, baina praktikoki, kontraturik ez dugunez, lanuzteak egiten ditugu.

Protesta hastearekin zeri egin diozue uko?

Elkarreak uko egin dio ETBrentzat lan egiten duen enpresan aritzeari, aipatutako baldintza eskasengatik. Horrez gain, momentuz, Zineuskadi programako fil-



Libe Aranburu. ||| Julene Frantzesena

mik ez bikoiztea erabaki dugu, erantzukizun osoa jaurlaritzarena delako. Arazoa konpontzeko eskumenak eta bitartekoak erakunde horren Hizkuntza Politika Sailak eta EITBk dauzka. Euskarazko bikoizketak egon behar baldin badu, gure lanbideari gutxieneko duin batzuk ezarri behar dizkiote, baina uste badute euskarazko bikoizketarik ez dela behar, esan dezatela jendaurrean. Ezin dutena da egoera bere honetan mantendu, eta horren aurrean bi aukera daude: benetako konpromisoa hartzen dute lanbidea aurrera ateratzeko moduko lan bolumenarekin, edo batere ez.

Zer sustatu behar lukete erakunde publikoek?

Berriz ere bikoiztutako edukiak sortzeko ohituraren eragin behar lukete, telebistaren sorreran, 80ko hamarkadan, egindako moduan. Laugarren eta bosgarren mailako edukiak bikoiztu beharrean, kalitatezko produktua landu behar lituzkete. Horrelako edukiak parrillan jarrita erakarri behar dira herritarrek euskarara. Dakitenentzat eta ez dakitenentzat izango da baliagarria, eta ez du balio hizkuntzaren ahozkotatuna sustatzeko gaitelaniaz azpidazteak.*

||| Elkarriketa osoa uztarria.eus-en

EFEMERIDEAK |||||

1638

Lehen harria. Loiolako obretako lehen harria jarri zuten urte hartako martxoaren 28an.

1866

Gauzainen soldata.

Gauzainen soldatak ontzat hartuta, Diputazioak emandako baimenaren berri eman zuten, egunean zortzi erreal emanez arduradunari, zazpi besteei eta erreal erdi bat ordezkoiari.

1979

Frankismo osteko lehen

Udala. Frankismo osteko lehen Udala osatu zuten herrian, Luziano Lazkano alkate zela.

2011

Igerilekua handitu zuten.

Estalitako igerileku berriua inauguratu zuten, lehendik zegoena osatuta. Kanpoko igerilekuaren zati bat estali zuten.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

KIMU BAT GARDEN

Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun iletsu, lumadun eta ezkatadunentzako eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, 2/g. AZPEITIA

Oinak gelditzean

Egunero, hutsik egin gabe, korrika aritzen bada ere, badu bestelako afiziorik. Parrandazale fama ere badu kirolariak. 📝📷 Mireia Galarza



Kirola egiten ez dudanean zerbait falta zaidala sentitzen dut”, dio Xabier Lasak (Azpeitia, 1973). Gaur egun, lasterka egiteagatik eta horretan lortu dituen balentriengatik da ezaguna azpeitiarra, baina atletismoa ez du izan betidanik lehentasuna eta lehen kirola. Izan ere, korrikalariak aitortu duenez, “berandu samar” hasi zen korrika egitea serio hartzen; 25 urte inguru zituela, hain zuzen ere.

Hala ere, kirolak beti eduki du tarte Lasaren bizitzan. Gaztetxoa zela, kuadrillakoekin

eskolan hasi zen futboleko jokatzeko, eta horretan jarraitu zuen urte batzuetan. “Gerora ikusi nuen futbola ez zegoela niretzat eginda, eta atletismoaren bidea hartu nuen”, gaineratu du. Korrika egitean, “gustura eta eroso” sentitzen dela dio, eta Lasarentzat horixe da garrantzitsuena. “Niretzat lasterka egitea *hobby* bat besterik ez da”. Eta horrexegatik, Lasak ez du uste atletismoa bere ogibide bihurtzeko. Haren esanetan, bere kasa ibiltzen da korrika, inongo presiorik gabe. “Ez nago inongo taldetan federatuta;

izan ere, neure erritmoan jarraitu nahi dut atletismoaz gozatzen”.

Lasak dioenez, atletismoa ez da oso kirol garestia, baina aitortu du diru pixka bat “kentzen” duela. Azpeitiarrak esan duenez, korrika egiteko erabiltzen dituen zapatilak bi hilabete behin aldatzen ditu, eta horrek kostua duela argitu du. Horrez gain, lasterketa askotan izena emateagatik ordaindu egin behar dela ere adierazi du. Korrika egitea musutruk ateratzen ez bazaio ere, horrek eragiten dion kostua ez da esfortzu handia Lasarentzat:

“Badakigu zer izaten den: gustuko lekuan al-daparik ez”.

Beraz, korrika bai, baina lana ere bai. Erdi edo goi mailako ikasketarik ez zuen egin Lasak, eta 18 urte besterik ez zituela hasi zen lanean. Halaxe jarraitu du gaur arte: “19 urte igaro nituen enpresa batean lanean, baina krisiaren ondorioz, enpresa itxi egin behar izan zuten, eta lanik gabe gelditu nintzen”. Egun, ordea, galdarak egiteko soldatzaile lanetan aritzen da Errezilgo Domusa enpresan. Hainbat errelebotan egiten dute lan kooperatiba horretan, baina azpeitiarrak azaldu duenez, azkenaldian goizez aritzen da beharrean. “06:00etan sartzen naiz lantokira, eta 14:00ak arte aritzen naiz lanean. Egia esan, gustura joaten naiz lanera. Eguerdian, handik bueltatzean, bazkaldu, kafea hartu eta siesta egiteko ohitura daukat. Eta ondoren irtetzen naiz korrika egitera”.

Kirol gehiago ere bai

Atletismoaz gain, beste gustuko kirol batzuk ere baditu azpeitiarrak. “Korrika baino gutxiago, baina bizikletan ere ibiltzen naiz”. Ondo gogoratzen du hark Mandubi gainera bizikletan lehendabizikoz igo zen aldia. “Lehen buelta izan zen ordukoa, eta harrezkero, hobetzen jarraitzea izan da nire helburua”. Txirrindularitzaren munduan, erreferente moduan izan du Miguel Indurain, eta hura erretiratu zenetik, Lasak ez du aurkitu hainbeste estimatzen duen txirrindularirik.

Futbolzalea ere bada, baita Athleticzalea ere. Lasaren kuadrillan bera ez da salbuespena, ordea; bat baino gehiago dira talde zuri-gorriaren aldekoak, eta hark adierazi du, gazteak zirela, Athleticcek eta Real Madrilek jokatzen zuten partida bakoitzeko saiatzeko zirela Bilbora neurketa ikustera joaten. “Bilbon pote batzuk hartu, partida ikusi, afari ederra egin, eta etxera bueltatzen ginen”, gogoratu du.

Euskal musikaren zalea

Kulturak ez du denbora gehiegi hartzen Lasaren bizitzan; ez da bere indargunea. Haren hitzetan, zinera joan zen azken aldia duela sei urte inguru izan zen: “Cyrus filma ikusi nuen, eta harrezkero ez naiz zinema areto batera bueltatu. Izan ere, ez dut asko atsegin zinema”. Liburuak ere ez ditu asko maite. “Ez dut liburu askorik irakurtzen, baina hori bai, egunkaria egunero irakurtzen dut; batez ere, papearean”.

Musika bai, musika atsegin du azpeitiarrak; batez ere, euskal musika, euskarazkoa,



1. Hainbat bizikletazalek bazkaria egin zuten Jai-Alai jatetxean. Beheko ilaran, ezkerretik hirugarrena da Lasa.

2. Lasa, Huescan egiten den Quebrantahuesos probaren edizio batean.

3. Lasa, beheko ilaran eskuinetik bigarrena, kuadrillakoekin 1996ko Elegante Egunean.



eta musikari gogokoenen artean ditu, besteak beste, Mikel Urdangarin eta Benito Lertxundi abeslariak. “Hala ere, parrandan-eta giroan sartzean, bestelako musikaz ere gozatzen dut”.

Lasak aitortu duenez, teknologia berrien fenomenora ez da askorik moldatu oraindik: “Justukorako erabiltzen ditut, ez naiz teknologiaren zale amorratua. Dena den, oinarritzeko gauzetarako erabiltzen ditut gailuak”.

“Parrandazale” fama

Kirolaria festazalea ere bada. “Kuadrillan parrandazalea naizela diote”, esan du azpeitiarrak barrez. Eta nolabait, hori diotenei arrazoia ematen die Lasak. Izan ere, gazte-gaztetatik kalera irteteko eta kuadrillakoekin afarixtoak egiteko ohitura duela aitortu du: “Asko gustatzen zait lagunekin elkartzeari, otorduak egitea...”. Egunerokoan korrika aritu arren, eta

proba garrantzitsurik ez badauka gertu diren datetan, elikadura ez duela “askorik” zaintzen ere jakinarazi du: “Etxean jartzen dutena jaten dut. Hori bai, behin kalera ateratzen baina, aukeran nahiago dut herrigunetik kanpo lasai-lasai afaltzea, eta ondoren, parrandara jaistea”. Eta badu horrek zergati bat. “Ez zait batere gustatzen ni taberna batean afaltzen egotea eta inguruan poteatzen dabilen jendea begira edukitzea”, gaineratu du.

Festazale fama izanik, herriko jaiez galdetu egin behar. Eta galdera horri erantzuterakoan ez du zalantza izpirik Lasak: “Gehien gustatzen zaizkidan Azpeitiko festak egunez ospatzen direnak dira, eta bateren bat nabarmentzekotan, batez ere, Elegante Eguna eta santotomasak aipatuko nituzke. Egun horietan, goiz eta eguerdi partean, plazan eta Alde Zaharreko kaleetan sortzen den giroa izugarria izaten da”.*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	02 60 69
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdia	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (MARTXOA)

1-7-14-18-19-30-31
Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

6-11-23-24-25-29
Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 27an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



TURISMO BULEGOA.

Basazabal jauregian kokatu dute turismo bulego berria. Asteartetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara zabalduko dute; asteburu eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara.

5-9-10-15-21-28
Arrieta (Azpeitia).
943 81 12 74

GAUEZ, URTE OSOAN
Arrieta (Azpeitia).
943 81 12 74

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

ITZIAR ARRATIBEL

Eivissa, Balear uharteak

“Bidaiatzea bizitzako motor bat izan da niretzat”

Bikotekidea han bizi zela eta, duela sei urte Eivissara (Herrialde Katalanak) joan zen azpeitiarra. Dena den, sarritan itzultzen da jaioterrira  Ihintza Elustondo

Nola iritsi zara Eivissara?

Bidaiatzea eta kanpoan bizitzea bizitzako motor bat izan da niretzat. Garapeneko lankidetzan lan egin izan dut, hau da, txirotutako herrialdeetan garapen prozesuak bultzatzen, eta lana tarteko, Mexikon, Latinoamerikan, Afrikan... bizi izan naiz. Orain, Eivissara joatea tokatu zait. Zehazki, Sant Josep de Sa Talaian bizi gara, baserri batean.

Nolakoa da zure bizimodua han?

Oso lasaia, familia girokoa. Lana bilatzea izan da gehien kostatu zaidana, Eivissan gehienbat turismotik bizi direlako eta gai-nontzeko lan alorrak eskasak direlako. Bost urte landa garapeneko elkarte batean eman ditut lanean, eta orain, neure kasa ari naiz: erakundeen indartze prozesuetan, berdintasun alorreko proiektuetan...

**Berdintasuna bezalako aldarrikape-
nek zer indar dute han?**

Oraintxe ari dira pixka bat pizten. Mugimen-du feminista oso ahula izan da, baina azken bizpahiru urteotan hainbat prozesu bultzatzen ari gara. Niretzako Eivissan esparru hori bilatzea oso garrantzitsua izan da. Izan ere,

gizarte antolakuntzan ahulezia handiak dituzte han, Euskal Herrian ez bezala.

Irletan negua tristea izaten dela diote. Hala al da?

Ezetz esango nuke. Gero eta gehiago antolatzen dituzte bertako jendearentzako jarduerak: kirol nahiz gastronomia arlokoak...

Eta uda, nolakoa da han?

Kaotikoa. Baina eguzkia eta itsasoa ikaragarri gustatzen zaizkit, eta atsegin dut uda mediterraneoan pasatzea. Gustatzen ez zaidana masifikazioa da; horrek gizartean, baliabide naturaletan eta kutsaduran duen eragina.

Dioten bezain ideala al da Eivissa?

Gure aitak esaten duen bezala, han ere txakurrak hanka hutsik. Osasun eta hezkuntza zerbitzuak, esaterako, Euskal Herrian baino askoz okerragoak dira.

Gustura al zaude han?

Bai, nik erabaki baitut hara joatea eta nire bizitza proiektua han egitea: han dago nire bikotekidea, haren seme-alabak... Baina gauza asko sumatzen ditut faltan: besteak beste, euskaraz bizitzea, kale giroa, lagunak eta familia. Horregatik, sarri joaten naiz Azpeitira.*



1. Arratibel bikotekidearekin, Eivissan.
2. Azpeitiarra lagunekin, otordu batean.
3. Arratibel, Martxoaren 8ko greban.

559,64 kilometrora dago Eivissa.



Santu guztiak amenean

Hala omen da esaera Ondarroan. Kirmenek erakutsi zidan. Gauzak haize alde datozela esan nahi du, nonbait. Eta, alderantziz, gauzak haize kontra datozen, "ez daude santu guztiak amenean" esan ezinik ez dugula esango nuke. Kirmeni galdetu beharko nioke, edo ondoko ondarrutarrari. Bitoria alde honetan, orde, ondarrutarrak ez dut eskueran. Hobeko duzue zeuek saiatu herrian, hor badira-eta batzuk. Bat baino gehiago.

Ez daude santu guztiak amenean. Urte erdia ere bada Sanagustinpean bilera egin genuenetik. Bilera isila, horratik! Hortxe izan gintuzuen, astearte batez, Euskal Herriko inteligentziaren zati bat, inor askorik akordatu gabe. Elkartea, sindikatua, osatzea erabaki genuen, horretarako inprimakiak bete eta sinatu genituen, eta nortasun agiriak digitalizatu. Elkartea jaurlaritzaren erregistroan erregistratu nahi izan dugunean, ezetz, urriaz gero *on line* egin behar direla erregistro horiek.

Ez daude santu guztiak amenean. Hor da medikua kontsultan, gaixoak –eta gaixo ez direnak–, bata bestearen atzetik ikusten. Hala-katean, sartzera egin du gaixoetako –edo ez gaixoetako– batek. "Hara! Zu al zaitut mediku? Esanda nago, bada, ez dudala zuk ni artatzerik nahi!". Eta ipurdiz aldara egin eta irten da gaixoa –baina nolako gaixoa den ikusi beharko zenukete–, medikuaren kontsultatik, medikua ez arre ez iso lagata.

'Si es que' irakasle

Ez daude santu guztiak amenean. Hor da berriz ere medikua kontsultan. Baina ez da aurreko mediku bera, haren kide bat baizik. Sartu zaio gaixoa gelara, jarri da, eta esan dio medikuari: "Zurekin bakarrik hitz egin nahi dut. Ez dut nahi hemen egoterik ez mutil hori (mediku ikaslea praktikan), ezta erizaina ere". Eta medikuak: "Ezinezkoa da. Hemen egon behar dute. Laguntzaileak behar ditut



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Eta ipurdiz aldara egin eta irten da gaixoa medikuaren kontsultatik, medikua ez arre ez iso lagata

lanean, eta, gainera, lekukoak, zurekin zer gerta ere!".

Ez daude santu guztiak amenean. Herriko bibliotekara joan naiz. Utzi ditut zenbait komiki eta liburu bat. Ordainetan, beste zenbait irakurgai hartu ditut, bibliotekarioak gomen-datuta. Handik irten eta gimnasiara. Harako bidean, Irati, gimnasia laguna, irakasle ikasketak eginda dauzkana. Bertan daukat autoa, eramango dudala esan diot, biok gimnasiara goaz eta. "Ez, eskerrik asko, *si es que* dago tarte gehiago autoz joanda!". *Si es que* irakasle izango da datorren urtean.

Ez daude santu guztiak amenean. Hasi dira maiatzeko udal eta foru hauteskundeetako propaganda bidaltzen. Psozialistena jaso dugu etxean. "Nahi dut" dute lema. Gauza pilo bat nahi dute pssozialistek. Sasi guztien gainetik, jaurlaritzarekin lankidetz handiagoa nahi dute, gauza askotarako. Besteak beste, "kultura sortzaileek laguntza publiko handiagoa izateko". Orduantxe pentsatu dut kulturara santu guztiak amenean ez direla sekula etorriko.✖



TiEN21 ESNAOLA

ZATOK
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak



- ELEKTROGAILU AUKERA ZABALA
- SMART BETALE PANTAILA BILATZEKO EROSKETA
- GARRAIO ETA INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIZIKIATZE GOSTO INTRORAI
- OBRA eta DEKORAZIO ZERBITZUAK
- www.milar.eus ON LINE EROSKETAK



608 313 047 (Etxetresnak)
688 616 881 (Sukalde Gunea)
Whatsapp bidezko zerbitzua.
Azkarrena!

MILAR

Cooking&Chef

Sukalde Gunea



SUKALDE ERAKUSKETA eta
sukaldeak jar ziteko behar duzun guztiak!

Julio Urkiza etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 16 97



Xabier Munabe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41

www.milar.eus



BARRE EGITEAK GAZTEAGO EGITEN ZAITU.

Zuk ez utzi barre
egiteari.

Guk barreak zure azalean
sortzen dituen zimurrak
gutxituko dizkizugu,
25 eurotik hasita.

no+vello

Zure azala zaintzen egiten dugu lan.

AZPEITIA
LDEFONSO GURRIUTXAGA, 8, BEHEA
TEL. 943044422

www.nomasvello.es